

GOIERRITARRA

HAMABOSTEKARIA

74. zenbakia

95eko uztailak 7



Gazteak protagonista

○ JOSE MARI OIARBIDE, LAZKAOKO KUTXA: ○ “Lehenagotik lan asko eta ondo egina dago”

Ordizian jaio, bizi eta bertako Bustuntzako entitatean gehienbat lan egina den Oiarbidek 44 urte ditu. Santa Ana eskolan maisu izan 3 urtez, Donostian peritaje merkantila ikasi eta geroztik AKP eta Kutxarekin egon da loturik azken 21 urteotan. Lazkaoko plazako Kutxaren bulegoan urte hasieratik dago, zuzendari moduan.

Bustuntza eta Lazkao

Bustuntzaz zerbait badauki, Ordiziako auzotarren aurrezteko joerez, banketxe bakarra beraiena izan baita orain dela 23-24 urtez geroztik: “Ondo ikusten dut auzo hori, CAF, Aristrain, eta oro har ondo dabilzen enpresetan enpleguak daude bertako asko eta asko. Bustuntzak hazkunde bat izan du, 2.500-3.000 lagun bizi dira. Denda eta komertzio gutxi dago, baina oso lasaia da, langileen zonalde erresidentiala-edo”.

Ordiziarra “eskola zaharreko” formakuntzaz jantzia eta Kutxak eman ohi dituen “gestore tipiko” eta efizientearen itxurak

ditu. Zoritzarrez iazko abuztuan hil zen Antton Irizar zenaren ordezkotza egitera etorri zen Lazkaokora. Hor urte dextente eman zituen Anttonek eta bere ustez, “lehenagotik lan asko eta ondo egina dago, bai AKP eta AK-Mren aldetik, fusioaren aurretik eta plazako hau oso finkatua eta errotua dago lazkaotarren artean”.

KUTXAREN ESKEINTZAK

*** Berehalako opariak:**
uztailaren 28ra bitarte, 3
hilabeterako
diru-ezarpen bat eginez
gero; interesen orde,
zenbait opari: erloju,
piknik sorta, esprimidore
edo zukutzaileak.
*** Kontsumorako**
kredituak.

Elosegik kaleko enpresei zuzendutako sukurtsala Ordiziara pasa eta itxi egin zen. Herriko plazakoaren indarra ez da jeitsi, ordea, baizik eta mantentzen da eta hor jarraitzeko asmoak dauzkate. 6 lagun daude bertan: 2 gestore gisa (beren segmentazioekin), leihatiletan beste 3



lagun eta azkenik Jose Mari, koordinatzaile gisa, bezeroekiko harremanak bultzatzen, bezero berriak lortzen, e.a.

Lazkaoko martxa ondo ikusten du: enpresa handiez gain, Azkar, Hiribarren, Comebasa, e.a. badoaz eta jendeak aurreratzen du. “Guk ‘ekonomia domestikoa’ darimagu, 3. adinekoen kontuak; etxebizitzaren aldetik promozio bat badago oraintxe (40 etxebizitza, Lazkaoko Promotora), Zubizkitza (familibakarrentzako etxeak egin zituena) ere hor dago eta gerorako ere badira beste zenbait proiektu”. Orain arte halako askorik ez zen izan eta onuragarria deritzo oraintsu egin izanak.

Kutxa, bere zuzendari eta langile bakoitzak era desberdinean ikusiko du,

baina azkenean adar asko hartzen dituen bat eta bera da. Etxeetako ekonomiak aurrera eramaten laguntzeaz gain, “batetik, beti ditugu eskeintzak presamuen aldetik, maileguak emateko beti bezain prest gaude; bestetik, kanpaina bat ere hasia dugu, norbanakoei eta komertzioei kontsumorako zuzendutak”.

Ordizian lanean ari zela, “goiko” bulegoetatik bideratzen ziren kultura, kirol, e.a.-etarako laguntzen eskaerak. “Sorpresarik handiena izan dut Lazkaon, zenbat eskaera izan den Sanprontziotako festen inguruan. Hori seinale ona da, sentitzen da zer nolako lotura duen jendeak Kutxarekin eta geurok ere erantzuten dugula”. Lazkao-Txikiren omenezko ekin-tzetarako ere lagundu dute.



kutxa fundazioa
fundación kutxa

**GOIERRITARRA
HAMABOSTEKARIA**
Argitaratzailea:
"Goierritarrak" Kultur
Elkartea.

Dorre-etxea, 1.
(Correos-gauean).
Tfnoa: 889612.
Faxa: 882719.
124 posta kutxa,
Ordizia.

Zuzendaria:
Loinaz Agirre.
Maketazioa:
Mikel Albisu.
Publizitatea:
Argider Mujika.

Erredakzio Batzordea:
Dionisio Amundarain, Jon
Arano, Mikel Albisu, Jon Ima-
nol Iturrioz, Patxi Zubizarreta,
Ane Martin, Loinaz Agirre, Ne-
kane Altuna eta Estitxu Imaz.

**Zenbaki honetako kronista
eta kolaboratzaileak:**

Aitor Calvillo, Joseba Telleria,
Ana Irastorza, Rufino Iraola,
Jon Aizpurua, Izaskun Salazar,
Aitziber Murua, Mari Joxe Ma-
dariaga, Xabier Gartzia, Aloña
Galarraga, Jon Mikel Arano eta
Pilare Mujika

**Fotokonposaketa eta maketa-
zioa: GOIERRITARRA.**

Inprimaketa: ANTZA, S.A.
(Industrialdea, 1-2. Lasarte-
Oria)

Tirada: 4.900 ale. 4.700 harpi-
dedun.

ISSN: 1132-0907

Lege Gordailua: SS-926/89

Frankeo kontzertatua: 37/76
GOIERRITARRAK ez du
bere gain hartzen derrigorrez,
aldizkarian adierazitako esa-
nen eta iritzien erantzunkin-
zunik.

▼ Hamabostaldian nabarmen ▼



Mendebaldeko Saharari elkartasuna

Beasaingo Txindoki Institu-
tuko Logse I mailako ikasle
talde bat, Mendebaldeko
Saharari buruzko lan bat egi-
ten aritu da. Horrekin batera,
Saharari laguntza pixka bat,
lortzen saiatu dira. Sahara-
rrek duten arazoa ondoren-
goa da ikasleen arabera:
"1975. urte arte Espainiaren
kolonia izan zen baina
Franco hiltzean dena aldatu
zen; ondorioz Marokoren
esku geratu zen eta oraindik
horrela jarraitzen du. Men-
debaldeko saharar herriak
eta bere ordezkaria den
'Frente Polisarioak' inde-
pendentzia lortu nahi dute eta
NBEk erabakitako autode-
terminazio erreferenduma
noiz eta nola egin zehaztu
ezinean dabilta".

Hori dela eta, "jendea
arazo honetaz jabetzea eta
saharar herriaren aldeko la-
guntza-ekintzak aurrera
eramatea izan dugu helburu.
Horretarako, hemengo ikas-

leok hasiera batean, eskolako
materiala eta arrain kon-
tserbak biltzea erabaki ge-
nuen". Kuadernoak, liburu-
zaharrak, boligrafoak, mar-
goak, jostailuak, mantak...
denetarik bildu dute. Donos-
tiara etorri diren haur saha-
rarrei (hango umeak hemen-
go familiekin elkartzeko
ekintza sozialaren barnean)
eman zaie zuzenean Beasai-
nen bildutako materialeak.

Ekainean hainbat ekintza
burutu dituzte ikasleek, beti
ere, Mendebaldeko Saharari
buruzko informazioa zabal-
tzea. Horretarako, diapositi-
ba eta bideo emanaldiak, eta
erakusketak egin dituzte.
Gonbidatu berezi bat ere izan
zen Institutuan: Frente Poli-
sarioak European duen enba-
xadorea, Mohamed Salem.
Era berean, saharar gazteei
gutuna ere bidali die bea-
saindarrek. Eta ondo joanez
gero, hartuemanetan jarrai-
tzea dute helburu.

Besteek esana

"Militar gizajoa hiritar huts
gisa eta lazo urdinarekin
zihoalarik eraso omen ziotean
hatxebero batzuek eta berak
babesa bilatu Easo ertzainde-
gian. Eta sinistu egingo dute
askok gainera... Mesedez!
Gauza bat da borroka arma-
tuaren kontra egotea, edo
HBri bazarik eman nahi ez
izatea, baina horren izenean
ezin irentsiko dugu porru hori:
Olarrak Donostian norbaite-
kin estropozo egin eta deskui-
doan CESIDeko kapitaina
tokatu. Ni seguru nago Er-
tzaintzak ondo aztertu eta
gorde duela Easoko bere etxe-
ko jira osoan dauzkan kame-
rek grabatutakoa. Autxak ez
dizkigu bideo horiek eraku-
tsiko, baina EAJk jakingo du,
seguru asko, Madrilgo gober-
nuaren aurreko negoziazioe-
tan material horri ere zukua
ateratzen".

**Xabier Mendiguren, Egun-
karia, 95-VI-30an.**

"Nik ez diot berezitasunik
ikusi pertsonaiari homose-
xuala izateagatik. Pertsona
guztiak bere joerak ditu: ba-
tzuei neskak gustatzen zaiz-
kie, besteei mutilak; bakoit-
zak aukeratzen du zer gusta-
tzen zaion.(...) Uste dut badela
garaia Euskal Telebistan gai
hori pixkat itxuraz tratatzeko,
bestela betiko topikoetatik
ezin irtenda baikabiltza".

**Asier Zinkunegi, Egunka-
ria, 95-VI-28an.**

*Eusko Jaurlaritza-
ko Kultura Sailak,
Gipuzkoako Foru
Aldundiak eta*

GOIERRIKO UDALEK diruz lagundutako aldizkaria



GOIERRITARRA dohain
jaso nahi dut etxean

Izen deiturak

Helbidea

Herria

Ordiziako 124 Posta Kutxara bidali

Migel Angel Etxeberria 'Etxebe'ri:

Aupa hi!

Ez dakit ziur non zauden, baina nere buruan zure izena askotan azaltzen da. Dagoeneko ikasiko zenuen euskeraz hitz egiten. Seguraski orain ere barrez lehertzen zaude, edo hainbeste ez bada, irribarrez behintzat. Ez dut sekula ahaztuko zure barrearen algara, ezta zure izateko era ere, zenuen lagunak egiteko gaitasuna... zure akatsak berriz aspaldian ahaztu nituen. Denborak eta lasaitasunak ematen duen patxararekin esango nuke ia perfektoa zinela. Baina perfekziorik ez dagoenez lagunetaz hitz egiteko garaian, argi eta garbi esan dezaket nuen lagun minena galdu nuela. Eta ez nik bakarrik, ezagutzen zintuzten guztiek ere zerbait handia galdu zuten zu hiltzean. Heriotza gauza gogorra da, eta are gehiago bapatean datorrenean. Gertatutakoa sinisteko besterik ez genuen izan. Zoritzarreko egun madarikatu hartan egunsentiarekin hemendik aldegin zenuen. Ez nuen esnatzeko denborarik izan. Zaplaztako bat bezala izan zen albiste hura. Ez ziren ausartzen niri egia esaten, baina ezkutatu ezinezko gauza zelako, zu istripuz hil zinela kontatu zidaten. Ezin nuen sinistu. Zu ez! Ez nekien zer egin, eta kalera jo nuen lagun baten bila.

Nere ustez inoiz ez dugu (egun hartan bezala) talde bat ginelaren sentimendua hain garbi izan. Nik ez dut sekula horrelako minik sentitu. Kon-

turatu nintzenean ez zintudala gehiago berriro ikusiko, mundua gaineen erori zitzaidan. Nere burua abiadura handian zihoan, baina pentsamendu guztiak oso beltzak ziren. Zergatik zu? Eta zergatik horrela? Nik ez dut inoiz garbi eduki Jaungoikoen existentzia (ala ez) baina egun hartan denak madarikatu nituen. Zergatik da bizitza hain latza? Zergatik hil behar zenuen zure bizitzaren une zoriontsuenean? Nere ustez ez zegoen eskubiderik. Alde batetik haserre nengoen, baina bestetik erabat lur jota. Egun haietan bizi izan nuen tristura ez dut nere bizitza guztian ahaztuko. Barrutik zerbait puskatu zitzaidala iruditzen zitzaidan, behar bada bihotza... Baina nik bizitzen jarraitu beharra nukan eta zu gabe oso gogorra ikusten nuen egoera. Aste bat egon nintzen ia jan gabe, lo nengoenean behar bada lasaituko nintzen, baina goizean esnatzean laino beltzak berriz itzultzen ziren nere pentsamenduetara.

Behin eta berriro ez dakit oraindik nola ez nuen burua erabat galdu... Azkenean eta oraindik ez dakit ze indar klasek bultzatuta kanponsatura abiatu nintzen. Egun eguzkitsu bat zen. Gora iritsi nintzenean, zure hilobia bilatzen hasi eta hantxe aurkitu nuen, oraindik erabat bukatu gabe. Adreilu batetan zure izena igeltsoz idatzia zegoen, eta haren ondoan zenbaki bat. "Hor barruan zaude" pentsatu nuen, eta ideia sinple horrek ezusteko lasaitasuna eman zidan. Lora batzuk jarri nizkizun

eta haien ondoan aldizkari batetik hartutako txiste bat ipini nuen. Ez dakit zenbat denbora igaro nuen bertan, baina behar bada ordu pare bat pasako ziren. Askoz hobeto sentitu nintzen. Txorakeria bat badirudi ere, zu eta ni elkar egon ginen une haietan edo behintzat hori zen nik uste nuena. Gerorarte esan eta etxeruntz abiatu nintzen. Momentu hartan egin nuen promesa ikusten duzunez ez dut ahaztu. Urteak joan urteak etorri nerekin jarraitzen duzu. Ezin izango zaitut inoiz ahaztu eta horregatik, nere barnean, ezkutuko leku sekreturen batetan, hor zaude zu beti behar zaitudanean. Nerekin zoaz leku guztietara eta nerekin segituko duzu destinuak nahi duen bitartean. Zurea destinu petrala izan zen, baina gurea sekulakoa izango da, (hori espero dut behintzat). Agurrik esan ezin daitekenean hobe da besarkada bero bat.

Zuk egin ez zenuena hor gelditu da airean, denbora falta izugarria izan bait zenuen, baina zu ezagutzeak bai merezi izan duela, nahiz eta azken hau bihotz gogorrena apurtzeko gai izan. Asko maite zintudan, beharbada ez zuk nahi zenuen bezala, baina benetan esaten dizut neretzat ez zarela erabat desagertu. Betirako nere irribarre eta malkoetan eramango zaitut, zin dagizut.

Ane Olano Txintxurreta (Beasain)

GOIERRIKO ZURAK, S.L

Inportazioko egur biltegia
Ohol, aglomeratuak, e.a.

Iribarren, z/g
88 80 23

LAZKAO



OSTATUA

JATETXEA

Juan Rubio

Astelehenetik ostegunera 7,30etatik 9,30etara afari-meriendak

Zelaira eramateko zerbitzua: entsaladak, patata tortilak eta oilaskoak

Oianguren Parkea

88 91 06

ORDIZIA



Gero jator eta atsegina

BASAKANA

ITURRIOZ 11
BEASAIN

Intereseko

Telefonoak

Zumarragako Eritetxea:	721614
Donostiako Erresidentzia:	453800
Gurutze Gorria:	272222
DYA:	464622
SOS Deiak:	088
Eguraldi informazioa:	094
Errepideen egoera:	288888
Ertzaintza (Beasain):	887350
Suhiltzaileak (Ordizia):	881362
Renfe (Beasain):	880853
Sarasola Garraioak:	880710
Pesa Garraioak:	880668
Estellesa (Donostia):	470115
Itxaropenaren tfnoa:	429742
HIES-SIDARI buruzko Inf.:	282666
Alkoholiko Anonimoak:	276618
Goierri Lanbide Eskola:	880062
GOIERRITARRA	889612

Errezeta



**Juanito Rubiok
emana
Oiangu Jatetxea
Ordizia**

HARAGIA PIPERRADAREKIN

Osagaiak: 4 laguntzat: kilo bat haragi puskatan, 2 tipula julianan, 2 piper berde arotan, lata erdi piper gorri, lata bat tomate, kilo laurden azenario.

Haragia egiten jarri kolorea hartu arte. Barazkiak

gehitu, eta ordu t' erdiz poliki-poliki egiten utzi. Jarraian piper gorriak eta tomatea bota, eta 18 minututan utzi egiten. Haragia biguina edo eginda dagoen ikusi, eta horrela bada, platera bukatuta dago. Plater erraza eta merkea, taldeentzat eta elkarreetan egiteko oso egokia.

Bota bertsoa



**Alaitz Sarasola
Gaia: Bukatu da ikasturtea
Doinua: "Astebur alde-ra"**

Ikasleon bizitza ez da nobedade, (bis) urria bihurtzen da inperua(re)n pare, gero kurtsoan zehar umil ta herabe, azkenerako denok nazkatuta gaude, izerdirik atera ez badugu ere.

Ekainaren azkena ez dago aparte, (bis) ez digute egingo opor batzuk kalte; liburuak baztertuz irailera arte aprobatu dutenek ospatu bezate eta suspendituek beste horrenbeste!

ZUHAIZKI

Zurgindegi Mekanikoa



**-LEIHOAK, ATEAK
ETA ABAR**

**-ESKAILERAK
NEURRITARA**



Beko kale, z/g.
Tel. 88 71 26
Faxa: 16 10 77
ITSASONDO
(Gipuzkoa)



ETXE-ZVRI
SAGARDOTEGIA

- Bataio, jaunartze, lagunarteko eta negozio bazkariak
- 2.000 pztako menu bereziak
- Karta

Sagardoa urte guzian txiritik
Aurrez deitzea komeni da

Tfnoa.: 88 20 49

OLABERRIA

IKASTEK AKADEMIA

Uztailan eta abuztuan

UDA IKASTAROAK

- maila eta arlo guztiak
- laguntza pertsonalizatuak
- irakaslego trebetua
- kalitate eta profesionaltasuna

Informazioa 3etatik 8etara

☎ 16 01 20

Joan Iturralde, 5

BEASAIN

Debaldeko iragarkiak

Salerosketak

□Akordeoi bat salgai "zero fette" markakoa, botoiduna, oso egoera onean. 884920.

□Urtebeteko bizikleta kua-dro bat saltzen dut (18 pul-gadatak), txikia gelditu zaidalako. Specialiced markakoa, 5 urteko garantia dauka. Salneurria eztabai-datzekotan. 160160 Joxi.

Lana

□Mutil gazte batek edozein lan egingo luke: atari, bu-lego, taberna, garbiketak... 88 33 66. Koke.

□Historialari bat eskain-tzen da genealogia egiteko. 883072 (Arkaitz, iluntzeko 8etatik aurrera).

□Neska gazte batek kama-rera bezala lan egingo luke jatetxe edo tabernaren ba-tean festetan, extra gisa... Esperientziaduna. 16 02 34 edo 88 30 53. Ane.

□Gazte batek zenbait lan egingo lituzke: soldadore, eraikuntzako pioi, nekaza-ritzan... Trailer eta autobus karneta ere badu. 88 67 32. Alberto.

Etxebizitzak

□Ganbara bat salgai Tolo-sako alde zaharrean. Berri-tzeko. 42 05 36.

□Pisu bat alokatu nahi dugu Beasainen. Idatz Beasaingo 50 posta kutxara.

□Alokatzeko pisu bat behar da Beasainen. Idatz Bea-saingo 50 postakutxara.

Egutegiak

ANTZERKIA

✓ Beasain:

Uztailak 14, Legaleon taldearekin kafe-antzerkia Loinatz Tabernan, 22.30etan.

✓ Lazkao:

Uztailak 11, Bederen Bat taldearen 'Errenta' obra, Areria Zineman, 21.30etan.

Uztailak 20, Sebasto-poleko titiriteroak, Plazan, 19.00etan.

BERTSOAK

✓ Lazkao:

Uztailak 18, Goierriko bertsolarien saioa, Plazan, 21.30etan.

MUSIKA



✓ Lazkao:

Uztailak 15, Benito

Lertxundi, Kiroldegian, 22.30etan.

Uztailak 20, Drindots taldea, Plazan, 22.00etan.

ZINEA

✓ Beasain:

Igandea 9, "Rapida y mortal", 5 - 7.30 - 10.15.

Astelehena 10, "Rapida y mortal", 7.30 - 10.15.

✓ Ordizia:

Ostirala 7, "La ultima seduccion", 10.15.

Larunbata 8, "La ultima seduccion", 7.30 - 10.15.

Igandea 9, "Los Pica-piedra", 4.45. "La ultima seduccion", 7.30 - 10.15.

Astelehena 10, "La ultima seduccion", 7.30.

Ostirala 14, "Rob Roy", 10.15.

Larunbata 15, "Rob Roy", 7.30 - 10.15.

Igandea 16, "Rob Roy", 4.45 - 7.30 - 10.15.

Astelehena 17, "Rob Roy", 7.30.

HITZALDIAK

✓ Lazkao:

Uztailak 10, Intsumi-sioari buruzko hitzaldia, Plazan, 21.30etan.

IKUSENTZUNEZKOAK

✓ Lazkao:

Uztailak 6, Gonzalez-Katarainen 'Arrikutz' diapositiba-emanaldia, Plazan, 21.30etan.

Uztailak 12, Imanol Lasaren 'Urtaroak mendian' diapositiba-emanaldia, Plazan, 21.00etan.

Uztailak 19, Joxe Ramon Agirre 'Marron'en 'Alaska' diapositiba-emanaldia, Plazan, 21.30etan.

✓ Segura:

Uztailak 17, "Alaska", "Marron", 23.00etan, Plazan.



Uztailak 18, "Gipuzkoa 1915-1940", Kepa Gonzalez. 23.00etan, Plazan.

Uztailak 19, "Arrikutzeko kobazuloak", Angel Gonzalez. 23.00etan, Plazan.



Diseinu Grafikoa eta Publizitatea

Diseinu Grafikoa

Logotipoak, Katalogoak, Liburuskak, Packaging, Buzoiketak, Txartelak, ...e.a.

Serigrafia

Poloak, Kamisetak, Txanoak, Jaietako Zapiak, Boligrafoak, Pins, Piskailuak, ...e.a.

Errotulazioak

Ibilgailuak, Denda eta Enpresak, Seinaleztapena, Argizkoak eta Neonezkoak.

ORDIZIA ☎ 16 12 87 - PRUEBAS EN 24 HORAS - LEGAZPI ☎ 73 43 61

Uztailak 20, "Aizkorri: 4 urtarok", Batis Goi-koetxea. 23.00etan, Plazan.

Uztailak 21, "Ginea Papua", "Marron". 23.00etan, Plazan.

ERAKUSKETAK



✓ Beasain:


Uztailaren 18ra bitartean, Torrelavegako 'Tertulia sago' artista taldearen erakusketa, Usurbe Antzokian.

Uztailaren 21era bitartean, Sol Narroren erakusketa, Atérpe Tabernan.

Uztailaren 23ra bitartean, Gazteentzako I. Pintura Lehiaketan aurkeztutako erakusketa Usurbe Antzokian.

✓ Segura:

Uztailaren 17tik 23ra,



"Marron"en 6 kontinentetako gailurren eta lurraldeen bilduma lana, Kultur Etxean.

MENDI IRTEERAK

Ordiziako mendizaleak:

Uztailak 7-8-9, Piriñoak-Panticosa.

Idiazabalgo mendizaleak:

Uztailak 15 eta 16, Guara (erreka arroilen jaitziera).

GOARDIAKO BOTIKAK

Uztailak 7: Jauregi; *8-9*: Cuesta; *10*: Laurnaga; *11*: Cuesta; *12*: Arriola; *13*: Urbizu; *14*: Atorra-sagasti; *15-16*: Laurnaga; *17*: Azpilikueta; *18*: Jauregi; *19*: Laurnaga; *20*: Cuesta.

Ordiziako azoka



Nobedadeen garaia

Bertako piperminak, indiar mahatsa (mermelada eta egitekoa), aran horia, San Juan sagarra, azalora eta Bruselasko aza landarak, eta kanpoko 'Canella' udareak, paraguaioak, klaudia aranak eta Hego Afrikako laranjak izan dira azkeneko azoka nobedade nagusiak. Dena den, piskanaka joango gara zehazten.

Bertakoetan horrelaxe zeuden prezioak: piperminak 400-500ean, indiar mahatsa 400ean, gereziak 400-500ean, piper txorize-roak 300ean, magurdi edo franbuesak 500-400, tomateak 200-250ean, lekak 225-400ean, ilarak 350-400 pezetan, aran horiak 200ean, San Juan sagarrak 200ean eta azkeneko baba haundiak 100-150ean.

Kanpoko produktuetan, 'canella' udareak 175ean saldu ziren, paraguaioak 200ean, Hego Afrikako laranjak (hango neguko laranjak dira) 200ean,

melokotoi horia 300ean, tomateak 175-200ean, klaudia aranak 375 pezetan, albertxikuak 200ean, lekak 350ean, Gernikako piperrak 100-125ean dozena eta platanak 150-200ean.

Abereei dagokienez, arkumeak eta antxumeak 600 pezeta ordaindu ziren eta untzia 225 pezeta.

Perretxikuetan, ez zen bertako perretxiku gehiegirik azaldu. Prezioak: zizak (25 kilo) 4.000 pezeta, ziza horiak (15-20 kilo) 2.000, onddoak (10 kilo) 3.000 eta gibelurdinak (3 kilo) 2.500.

Landareetan ere izan zen nobedaderik: Bruselasko azak eta azalora landarak, hain zuzen ere. Zientoa 800ean saldu zen.

Arrainetan azkenik, legatza 1.750 pezeta; itsas-oi-larra 1.120; mihi-arraina 1.730; izokina 1.350; txitarro txikia 680 eta handia 780; zapoa 1.680; hegazuak 1.400; atuna 1.100 eta antxoak 790.



GOIAGI
OKINDEGI
Ogigintzan
onenak!!

Etxezarreta z/g
ORDIZIA ☎ 160501

- ♦ Egurrezko labean egindako ogi gozoa
- ♦ Opil finak
- ♦ Eguneroko ogia
- ♦ Ogi bereziak
- ♦ Ogi artisauak

Barandiaran Taldea, 2
ZALDIBIA ☎ 880737

IBAI - ONDO



ZURGINTZA
HALTZARIAK
P.V.C.ko LEIHOAK

Tailer eta erakusketa:

Antzizar Auzoa, z/g.

Tfona: 880543 BEASAIN



*Xabier Gartzia
(Beasaindar irakasle
eta idazlea)*

***“Consensus
hori lortu
ezean,
independentzia-
rekin amets
egitea, zakur-
ametsak egitea
baino ez da”***

Derradan hastapenetik inguru-minguruka ibili gabe: betidanik izan dut oso gogokoa Oskorriren kantutegia. Betidanik. Hots, baita Oskorrikoak espainolistaizat hartzen genituenean ere, eta, baita zenbait abertzale ustekok musika-taldea espainolista omen zela eta, tomateak jaurtikiz, Ormaiztegitik (Ormaiztegitik izan zela uste dut, memoriak huts egiten ez badit) bidali nahi izan zuenean ere. Betidanik gogokoak nik Natxo eta konpainia, G. Arestiren itzala (beste espainolista bat omen zenarena) ikusten bainuen taldean, eta itzal horrek abertzale usteko honi zer ikasi franko ematen baitzion. Espainolista omen zenaren gerizpean orrazten nuen nire euskara mordoiloa eta, horrezaz gain, kanten mezu bortitzak gogoetaka jartzen ninduen. Agian, hausnarketa gehien eragin zidan kanta Adela-rena izan zen. Adela beste mundura joan zela (joan zitzaigula) eta Oskorrikoek honela zioten eta honelaxe diote: “joan hatzaigu, eskoletan ere, euskal eskoletan ere, klaseen arteko burruka gogorkien leheretzen zenean, zeinean gizonak gizonaren kontra, eta euskaldunek euskaldunen kontra dihardukaten.” Magnetofonoak euskaldunek euskaldunen kontra dihardutela ozenki errepikatzen didan bakoitzean barruak asaldatzen zaizkit niri. Burua, aldiz, beldurrak airean jartzen zait, behin eta berriro galdetzen didala: lehertu al da jadanik gure arteko burruka gogorkien, ala gogorrangoak espero behar ditugu oraindik?

Oraingo leherketa lazo urdinaren inguruan gertatu da. Inguruan diot, ez lazo urdina jantzen dutenek eragin dutenik eta ez lazodunen aurrez aurre jarrita “Euskal Herria askatu” lemadun pankarta dutenek eragin dutenik ere. Ez naiz bigarren horien iritzi berekoa, baina ezta bigarren horiek guztiak txoraize ustel beldurgarri batzuk besterik ez direla uste dutenetakoa ere. Gure herrian 160.000 txoraize

Quo vadis, ene herria?

(boto horiek, guti beheti, lortu berri dituzte) daudela esatea astakeria handia da. Areago, horiekin ezertarako kontatu gabe sua biztu duen metxa sekula bukatuko ez den ustekoa naiz ni. Baina, lehen nioenez, leherketa gertatu da, eta beldur batean jarri gaitu euskaldun bat baino gehiago.

Beldurra ez da aholkulari ona, eta behar ez diren hitzak aterarazten ditu sarritan. Beldurrak, hitza ateratzekotan, batzuk salbatu eta besteak kondenatu ohi ditu. Nik, beldurrak erasanda, nahiago dut nire burua ixilari lotzea ezer kondenatzen hastea baino.

Beldurra dela mediante unean unekeaz mintzatu ezinean, ixiltasuna gure balizko geroaz mintzatu zait. Honela mintzatu ere: demagun bihar bertan independentzia lortuko dugula. Hori lortzearekin batera ezkutatuko al litzateke ETA? Independentziaren egunean ETArek gustokoa ez litzatekeen alderdi politiko bat hemengo agintean paratuko balitz, zer egingo luke ETAk? Ezkutatu ala betirako ekin? Baina, ETA galduko balitz ere, ez al litzateke EYL (España Y Libertad) balizko izeneko talde armaturik sortuko gure herria lehenera --orain gauden honetara, alegia-- itzul zedin? Ez baita ahaztekoa gurean EYL asko (GAL, Triple A, Guerrilleros de Cristo Rey...) sortu dela herri honen azpiraziorik legitimoenak suntsitzeko. Gainera, haintzakotzat hartu behar da, izan berri ditugun hauteskundeak emaitzen arabera % 48 inguruk alderdi espainolistei botoa eman diela.

Zer bake-giro goxoa emango liokete horiek beren gustokoa ez litzatekeen hemen sortutako independentziaren araberrakoz nazio berri-nazio zaharrari? Nazio berrian integratuko balira, eta nazio berriari bakea emango baliote, guztiz derrigorrezkoa da independentziaren eguna etorri aurretik % 48 horrekin gutxiengo consensus bat lortzea.

Gakoa, beraz, consensus bat lortzea da, zeinean % 48 hori gehi lehen aipatutako 160.000 inguru herritarrek gehi gainontzeko abertzaleak gutxiengo adostasun batera helduko bailirake. Consensus hori lortu ezean, independentziarekin amets egitea, zakur-ametsak egitea baino ez da. Nondik datorriguke consensusa? Politikak izango du zer eskainia, baina momentuz politika da beste ezer baino gehiago bereizten eta alderatzen gaituena. Gainera, politikan, atzerantz egin dugu nabarmen abertzaleok. Duela 15 urte Autonomi Elkarteak % 70 inguru ginen eta egun % 52 besterik ez. Consensusa, oraingoz, politikan baino gehiago kulturean ari gara lortzen. Oroitu duela 20 bat urte nola geunden kulturalki eta begiratu nola gauden gaur. Aurrerapen nabaria egin dugu. Beraz, kulturean egin behar ditugu ahaleginik handienak politikan egin beharrean. Ekonomia ere erdiesten ari gara zenbait consensus-urrats. Gure Iparra eta Hegoa elkartzen dituen hainbat proiektu ekonomiko sortzen ari da, eta hori poztekoa da noski.

Kulturean dela, ekonomian dela, edo beste edozertan dela, consensusa eduki behar dugu beti jomugan, begien aurrean alegia, eta aurre horrek erakutsi beharko liguken nola dantzatu oraingo atzea, atze ikaragarria baita lazo urdinaren inguruan sortu den eztanda, euskaldunok euskaldunon kontra jarri gaituen baztertu beharreko eztanda.

Txandaka

Ez dago eskaporik

Ez dago ezer esaterik. Ibarrako emakumeen alde eta Ertzainaren kontra ateratzen bazara, deituko dizu norbaitek zerbait puntualizatu nahi lukeela esanez. Euskal instituzioei begirunea behar zaiela esanez gero, "hara bestea!" entzungo duzu segituan. Bakearen aldeko kontzertua aipatzen baduzu, aipatze hutsarekin egin zenitzake begitan hartzeko merituak. Arrasaten Xabier Zubizarretak jarraitu beharko lukeela alkate esan nuen eta, "zer, hi ere ez hintzen, ba...?" eginez hasi zitzaizkidan. CESIDeko eskandaloaz mintzatzen bazara, ez dakit zeinen estrategiari mesede egiten ari omen zara. Buerenen jokabidea salatzen baduzu, berdin. "Aldaia askatu" esatea ere "Euskal Herria askatu" esatea dela esaten badut, hori sakrilegioa zenbaitentzat!

Baina zer da hau? Ez ote daukat nik pentsatzen dudana esaterik, begirada makur eta hain sorburu desberdinekoak jasan beharrik gabe?

Bertsolarien gaiarekin hasten banaiz eta EHBE eta ETBri arrazoia erdibana ematen badiet, biek kondenatuko naute; baita % 80an arrazoi ematen diodanak ere, harik eta % 100ean eman arte. Abortuaren gainean ezin naizela definitu esaten badut, aldekoak eta kontra-koak, denak haserretzen zaizkit, denek erasotzen didate. Jesusengan sinesten dudana agnostikoa naizela esaten badut, zorotzat jotzen naute batzuek eta besteek. Ez daukat eskaporik!

Rufino Iraola Garmendia

Inkesta

Ormaiztegiko zubi zaharrarekin zer egin behar da?



Miren Makaya
29 urte, langilea
Ormaiztegikoa

Bota egin behar litzateke. Trenak ibiltzen zirenean ere, gazteak motorrekin ibiltzen ziren. Orain berriz, harriak botatzen ibiltzen dira. Oso arriskutsua da.



Isidoro Criado
65 urte, jubilatua
Ormaiztegikoa

Zubi zaharra kendu. Monumentu historikoa izango da, baina herriak urtero 17 milioi behar ditu mantentzeko. Diputazio edo mantenduko balu hainbestean. Baina itsusia egiten du.



Amagoia Unanua
20 urte, txarkutera
ormaiztegiarra

Hasiera batean zaharra berritzea zela egokiena pentsatzen nuen, baina berria egin dute eta orain zaharra 'petatxo' bat da. Bi munstruo dira. Pena ematen dit, baina bota egin behar litzateke.

A ze flaxa!



- Mediku akupuntorea
- Pisuaaren kontrola
- Estetiziena

Santa María, 8 - Tel. 881211 - ORDIZIA

KONTSULTORIO MEDIKU-KIRURGIKOA

Goierritarrentzako mediku zerbitzu espezializatuak

Ordua eskatzeko Tfnoak: 885750 - 885754
Nafarroa Etorbidea, 25 - 2. BEASAIN

KUKO

Jatetxea

Kuko, gure txef-ak zure sabelak eskertuko duen menua eskeintzen dizu:

Astelehenetik ostiralera menu bereziak.

Eguerdietan 2.000 pzta. + BEZA

Toki mugatua dago, eskaerak aurrez egin.

On egin diezazula!

Berjaldegi plaza z/g
Tfnoa.: 88 28 93
ORMAIZTEGI

Ba la dakizu?

Udalerria	Bizt. aktiboa	Gizon.	Emak.	%
Zegama	526	31	38	% 13,5
Beasain	4.995	255	355	% 12,21
Mutiloa	75	5	4	% 12
Legorreta	610	29	40	% 11,31
Ordizia	3.793	184	233	% 10,99
Lazkao	2.109	101	128	% 10,86
Olaberria	489	23	29	% 10,63
Ezkio-Itsaso	225	12	10	% 9,78
Itsasondo	279	11	13	% 8,60
Ormaiztegi	473	12	25	% 7,82
Idiazabal	804	20	42	% 7,71
Zaldibia	724	30	25	% 7,60
Ataun	662	25	24	% 7,40
Gabiria	87	9	4	% 6,95
Arama	61	2	2	% 6,56
Segura	523	7	24	% 5,93
Altzaga	55	1	2	% 5,45
Gaintza	66	2	1	% 4,29
Zerain	94	0	2	% 2,13
GOIERRI	16.753	759	1.001	% 10,50

LANGABEZIA GOIERRIN. Aurtengo lehen 3 hilabeteetako INEMen datuak dira goiko taulakoak. Langabezi haundiena duen herritik txikienera.

IGARTU-BEITI BASERRIAN (Ezkio-Itsaso) ondare artistiko garrantzitsua aurkitu dute. Orain arte inon aurkitu ez diren bezala, Erdi Aroko (XVI. mendekoak) aztarnak aurkitu dituzte: baserriaren azpian, lurpean, aintzinagoko eraikin (etxola batena hain zuzen) baten oinarriak. Horatik aterako dira zer nolako eraikuntzak eta bizimodua zuten gure aurrekoek.

Alberto Santana da, ikerketa lanak koordinatzen ari dena. Igartu-Beiti baserria duela 2 urte Gipuzkoako Diputazioak erosi zuen, horrelako ezaugarriak dituen baserri bakarra dela eta. Ordurarte, Mendiguren-Bereziartu familia bizi izan zen 1944az geroztik.

JON OLANO atxilotu egin zuten joan zen astean. Beasaindarra intsumisioa da.

HAMAR URTEKO KARTZELA ZIGORRA ezarri die Txemi Arteaga, Josu Aierbe 'Txupi', Asier Irastorza 'Tortzi' eta Andoni Urrestarazu

goierritar gazteei. Maiatzaren 31n eta ekainaren lehen epaiketa izan zuten Madrilén, sabotaiak egin zituztelakoan. Epaiaren arabera, "terrorismo delituak" egin dituzte. Adei Barandiaran (apirilaren 10az geroztik, 500.000 pezetako fidantza ondoren kalean zegoena) libre utzi dute inongo akusaziorik gabe.

IRIZAR ETA ESTANDA enpresek, 'Enpresaritzak bikaintasunaren Felipe Printze saria' delako saria eskuratu berri dute. Irizarri diseinu berritzailearengatik eman zaio. Lujuzko Century autobusagatik hain zuzen. Diseinuari dagokienez gainera, disei-

nuaz soilik arduratzen den departamendua du Irizarrek. Estandaren kasuan berriz, ingurugiroari begira 1992an egin zuen 150 milioiko (fakturazioaren % 6,7a) inbertsioren ondorioz eman diote. Hondakin industrialak egoki bideratzen xahutu dute dirua.

CAFek 16 TREN BERRI egingo ditu Renferentzat, ABBekin batera. Guztira 7.000 milioi pezetako aurrekontua dute. Diesalak eta 135 bidaiari garraiatzeko modukoak izango dira tren berriok. Gainera, arinagoak, hots gutxiago ateratzen dutenak, igoera erretekoak, kontsumo bajukoak eta barne diseinu eskusibodunak izango dira. Galizia eta Andaluzian jarriko dituzte funtzionamenduan 1996an.

IDIAZABAL GAZTAREN KOFRADIAK VI. kapitulua egin zuen joan zen igandean Ordizian. Ekitaldi berezi bat egin zuten aurtengo ekitaldian: Antton Olanoren Mujika ordiziarra ohorezko jaun nagusi izendatu dute. "Ordiziako Udaleko aparejadore ohi den Antton Olanoren ahaleginei esker Idiazabalgo Gazta Lehiaketak izugarritzko maila lortu du; gainera Olanoren bera da Idiazabalgo Gazta Kofradiaren sortzaile". Olanorekin batera, Migel Mari Etxebarren, Fermin Gonzalez 'Kifi', Manoli Irastorza eta Patxi Castillo ohorezko kofrade izendatu zituzten.

SENDAGAIK KUBARA. 182 kilo sendagai bildu ditu Sasieta Mankomunitateak, sendagaiak biltzeko egindako kanpainarean on-



Tfona: 885500 ORDIZIA



ANZIZAR, S. A.

Autoelektrizitatea eta mekanika

Volkswagen taldea

Beasain-Zumarraga, 46 Kma.
88 17 00 - 88 17 04 BEASAIN

EROSKI KAFETEGIA

gosari - merienda eguneroko menua

88 27 93

ORDIZIA

dorioz. Kubara bidaliko dituzte sendagaiak. 1994ko apirilean jarri ziren Goierriko farmazietan sendagaiak bilzteko edukinontzi edo kontenedore txuriak. 9 hilabetetan 615 kilo bildu dira, eta hortik 433 aprobetxaezinak ziren. Uda amaierarako Kuba edo Ruandarako beste sendagai mordoxka bat bidaltzea espero da. Sendagai batzuek izaten dituzten produktu kimiakoak ingurugiroarentzat oso kaltegarriak direla azpimarratu du Sasietak.

□ ZEGAMAKO SAHIESBIDEA, zati bat gutxienik, errealitate dugu. Ur eta telefono instalazio berriak egin behar izan dituzte. Sahiesbide edo bariante honekin, herri erdiko trafikoa arindu eta erraztuko du.

□ HIESa. Goierriin HIES gaitzak kutsatuta dauden lagunak 72 dira, emandako azken datuen arabera. Gipuzkoari dagokionean, eta kopuruari begira, Goierri azken aurreko postuan dago. Dena den, Gipuzkoa da Estatu-tuan HIES gaixo duen lurraldeetako bat, hau da, 3. da Madril eta Bartzelonaren atzetik.

□ BEASAINGO SERORETXEA eraberritu (XVII. mende hasierakoa dela uste da) eta parrokiaren esku gelditu da. Orainartean Matia Fundazioaren jabetza izan da. Ekainaren 25ean inauguratu zen Seroretxea, eta Jose Mari Setien Gotzainak Meza Nagusia eman zuen. Herriko agintariak bertan izan ziren.

□ MUTILOA. Irailaren 1a baino lehen zaldi guztiak identifikaturik egon behar dutenez, gure inguruan oraindik ere markaketak egin daitez-

keen leku, egun eta orduak hauxek dira: Otzaurten, uztailaren 15ean, 9.30etatik 12.30etara; eta Oamendin uztailaren 16an, 9.30etatik 12.30etara.

□ BELARRA SILORATZEN Euskadiko txapeldun dugu J. Antonio Garmendia Itsasondoko Iraola baserrikoa. Adituen esanetan, gizon langilea eta siloratzerakoan trebea da Garmendia.

□ IZARO GARMENDIA zaldibitarrak egin du aurtengo Donostiako Kilometroen kantua ('Zurea eta nirea, euskararen bidea' izenekoa). Doinua oso erraza eta belarrian berehala gelditzen dena omen da. Zapotxin taldeak joko du kantua. Hitzak berri, Juan Mari Irigoien idazlearenak dira.

□ JOSUNE BEREZIARTU beasaindarra Euskadiko eskalada txapeldun dugu berriro ere, Elgoibarren jokatutako Euskadiko txapelketan, Leire Agirrerekin borroka gogorra izan ondoren. Gizonezkoetan berriz, Rikardo Otegi ordiziarrak bigarren egin zuen.

□ ENEKO GIBELALDEK jaso du Beasain Futbol Taldeko jokari erregularrenari Omegak ematen duen saria. Bigarren erregularrena Jose A. Sukunza, 3. Javier Elola, 4. Aitor

Leturia, 5. Iñaki Eskisabel eta 6. Peio Olano izan dira.

□ MARTIN ALUSTIZA pelotari segurarrak galdu egin zuen Euskadiko eskuzko binakako pilota txapelketa. Aitor Elkorro atzelariarekin batera, ezin zieten Salaberria eta Beloki nafarrei irabazi. 22-18 galdu zuten.

□ AITOR GARMENDIA itsasondarra Tour-ean dugu, Migel Indurainen ondo-ondoan. Bera da Tour-eko Gipuzkoako txirrindulari bakarra. "Uneoro Migel Indurainen menpe egon beharra dago", Garmendiaren esanetan.



□ AITOR AIERBE ETA JOSU PEREZ, Ordiziako Urdaneta ikastetxeko ikasleak, palan Gipuzkoako txapeldunak eta Euskadiko txapeldunordeak atera dira, Eskolarteko Txapelketetan.

OSASUN

BELAR ETA DIETETIKA DENDA
NATUROPATA

Eska ezazu eguna eta ordua

Goierri, 10 • Tfnoa: 88 61 14 • ORDIZIA

IKAS EZAZU MEKANOGRAFIA



meca
rapid

UDA GUZTIAN ZABALIK

Urdaneta, 23-1. ☎ 887278 **ORDIZIA**

JAUREGI TOLDOAK s/l

Tfonoak: 880243 - 880133
BEASAIN

INAZIO AGIRRE, GOIERRIN DAUDEN 4 APAIZ GAZTEETAKO BAT

“Eliza bat da, pertsonaz osatuta dago eta aberastasuna hor dago”

Garai batean apaiz sartzeari normala bazen ere, gaur egun gazte gutxi dira bide hori hartzen dutenak. Goierrin hauetako 4 kasu ditugu, Inazio Agirre hernaniarra, Abaltzisketan eta Orendainen apaiz, eta Lazkaon apaiz laguntzaile; Xabier Erro donostiarra Beasainen; Jesus Javier Dominguez urretxuarra Ordizian; eta Xabier Azkoitia urretxuarra Legorretan. 25 eta 37 urte bitartekoak dira guztiak. Opor garaia dela eta, hauetako batekin bakarrik egon izan ahal dugu, Inazio Agirre 31 urteko hernaniarrarekin. Berak 5 urte daromatza apaiz bezala, urte hauetan ezauna egin da Lazkaon eta baita Goierrin ere, elizaz gain, kalean, jendearekin eta noizean behin festa giroan ere ikusten den gizona baita. Hala ere, berak dioen bezala, gazteak direlako ez dira denak berdinak, bakoitzak bere izaera eta pentsaera du, baita elizaren ikuspegi ezberdina ere. Hona hemen Inaziok eliza eta beste hainbat gaiez kontatu diguna.

G.- Nolatan apaiz?

E.- Ni berez Hernanikoa naiz eta nire herrian mugimendu handia izan da zentzu guztietan. Niri beti gustatu izan zait horrelako gauzetan aritzea, laguntzea... Baina ikusi nuen hori bakarrik ez zela nere bizitza betetzen zue-na. Orduan kristau bezala aukera berezi hau egin nuen, jendeari dedikatzea ahal dudan denbora gehiena.

G.- Helduek nola hartzen zaituzte? Errezelarik izaten al dute?

E.- Bi jarrera daude nire ustez: batetik poztu egiten dira, badakitelako apaiz gutxi dagoela eta gazteak ikustea pozgarria da; eta bestetik badago, ez dut esango beldurra, baina bai kezka. Gaztea ikustean batzuk ez dira fidatzen, beraiek bizitzan esperientzia gehiago dutenez, gauzak egiteko, esateko gai ez garela uste dute. Ez dut



inoiz arazorik izan gaztea naizelako.

G.- Apaiz gutxi egin, eta utzi dextek.

E.- Nire ustez gutxi sartzen gara eta gehienek bukatzen dugu. Hori gizarte osoan izan zen etenaren garaian gertatu zen, sekularizazio asko izan zen. Baina momentu honetan hori nahiko geldituta dago.

G.- Badirudi azken urteotan elizara jende gehiago joaten dela. Gazte gehiago ezkontzen da elizatik. Zer dela eta?

E.- Bereiztu egin behar da. Ezkontza sakramentuari batzuk garrantzia ematen die, baina asko eta asko dira kristau giroan bizi garelako, familian ez hasarretzeagatik elizaz ezkontzen direnak, oso ondo gelditzen delako, baina ez planteamendu serio batekin. Jende aldetik, ez luke horrela izan behar, baina zerikusi handia dauka eliza horretan dagoen apaizak.

G.- Gazteak apaiz gazteekin hobeto identifikatzen dira?

E.- Pertsonekin esango nuke nik. Adinak ez du ezer esan nahi. Gaztea

adinez eta zaharra mentalidadez izaten dira asko. Pertsonak jendearen aurrean nola jokatzeko duen zerikusi handia dauka. Eliza inguruan sortzen den giroak ere zerikusi handia du. Larraitzen esaterako, mendira doazen gazte asko ikusten da mezatan. Pozgarria da. Badago sinisten duen gazte jendea.

G.- Berdinak al dira Erromako Eliza Katolikoa eta zure parroikia?

E.- Eliza bat da, pertsonaz osatuta dago eta aberastasuna hor dago. Gu saiatzen gara ebanjelioa jarraitzen. Jesus daukagu maisu eta eredu. Gertatzen dena da, pertsonak garenez denok ezberdinak garela. Egia da zenbait lege Erromatik etortzen direla, guk gero jakin behar dugu lege horiek ondo aplikatzen, ulertzen.

G.- Herri berri batera iritsi eta erraza al da integratzea? Ze harreman duzue elizaz kanpoko jendearekin?

E.- Norberaren arabera dago hori. Batzuk integratzen dira parrokiako jendearekin. Eta beste batzuri, jende horrekin duen harremanak herri mailako beste jende eta taldeetan integratzeko

balio izaten dio. Ahalik eta leku gehienetan sartu eta jende gehiago ezagutzea, herrian integratzeko laguntza da.

G.- Erraza al da sermoietarako gaiak, sermoiak prestatzea?

E.- Hasieran lana ematen zuen. Niretzat lan zailena jende kopuru bati hitz egitea da. Oso zaila izan zen niretzat. Bestetik jokatu egin behar duzu, hitza eta bizitza. Esaten duzuna ondo pentsatu behar duzu, gero adierazi egin behar duzu zure bizitzarekin esaten duzuna. Bihotzak eta buruak hitz egiten dute, eta neurtu egin behar da zer eta nola esaten den.

G.- Gaztea izanda, "fede gaztea" zabaltzen al duzu?

E.- Fedea ez da gaztea eta ez zaharra. Fedea nere ustez Jesusen bizitza jarraitzea, eta berak utzi zuen agindu bakarra, maitasun agindua, eta hor oinarritzen diren baloreak indartzea eta zabaltzea da. Ni saiatzen naiz justizia sozialaren alde, behartsuen alde, denok pertsonak izaten, elkartasuna, errespetoaren alde. Nire ustez fedea hori da.

G.- Pekatua zer da?

G.- Nola ikusten duzu abortoa?

E.- Legea hor dago, baina kasu bakoitza ikusi behar da. Generalizatzea oso zaila bilatzen dut.

G.- Ezkon aurretiko sexu harremanak?

E.- Gure artean errealitate bat da. Hor dago. Jendeari lagundu egin behar zaio, gauzak ondo adierazi.

G.- Antisorgailuak?

E.- Kontestu horretan lotuta dago. Errealitatea da. Penagarria irutzen zait Isabel Gemioen programa. Informazio aldetik ondo ikusten dut, baina nire ustez sexualitatea edo maitasuna ez dira teknikak bakarrik. Bi pertsonen artean sortzen den maitasuna adierazteko modu asko daude, eta hori ez da ikusten programa horretan.



E.- Lehen aipatu dudan maitasunaren eta hor oinarritutako baloreen aurka jokatzeari. Nik pertsona bat zapaltzen badut, jende behartsua ikusten badut inguruan eta ni hori aldatzen ez banaiz saiatzen, niretzat hori da pekatua.

G.- Gogorra al da zelibatua?

E.- Oso zaila. Gu ere haragizkoak gara, pertsonak gara, eta guk afektibitate

G.- Euskal Herriko pakea?

E.- Hori beste apustu garrantzitsu bat da. Posible dela sinisten dut. Batzuekin edo besteekin zaude eta dinamika hori puskatu egin behar dugu. Amore eman beharra dago, eta elkarrizketa beharrezkoa da, ezin dugu jarraitu gauden bezala.

G.- Eta elkartasuna?

E.- Gauza bera. Nire ilusioa, kristau eta Jesusen jarraitzaile bezala, justizia soziala bilatzen dut. Lotuta dago. Lehenengo pertsonak izan behar dugu, pertsonak ez garen bitartean elkartasunik ez da egongo zoritxarrez. Orduan ikasi egin behar dugu elkar errespetatzen, elkar hitz egiten, baina hori egiten ez dakigu zoritxarrez. Baina sinisten dut, eta horretan segituko dut.

tea, maitasuna badaukagu. Hori dena bideratzea ez da erraza. Egiten da, baina asko kostatzen da. Gure bizitza berezia da, ez daukagu loturarik familiarekin, jende askorekin dugu harremana, orduan maitasuna eta zenbait satisfazio inguratzen gaituenengan bilatzen dugu.

G.- Emakumezko apaizak noizko?

E.- Ingalaterran hasi dira Anglikanoak. Nire ustez etorriko da, bai zelibatuzko aukera, ezkontzeko aukera eta emakumeak apaiz izateko aukera. Denborarekin etorriko da.

G.- Apaizak politikan sartu behar al dira?

E.- Ni horretan Setien Gotzainaren arrazoiarekin ados nago. Etikan bai. Politikariak, alderdiak etikatik ateratzen badira hori salatu behar dugu. Guk pertsonen alde jokatu behar dugu. Elizako ateak zabalik daude. Hori izan behar da gure lana, dauden gorrotoak, zatiketak... bideratzea. Nahiz eta jakin denok ezberdinak garela, elkarrizketa eta pakean bizitzea posibilitatzea. Alderdiak mugatuta daude, batekin zerbaiten ados egongo zara eta bestearekin bestean. Ezin da inplikatu alderdi batekin, oso arriskutsua da apaiz baten zatzea.

G.- Zenbat otordu egin dituzue beskeen kontura? Goenkaleko Don Luis asko al dago?

E.- Goenkale ez zait gustatzen. Euskarazko telenobela arrosa iruditzen zait. Eta orduan Don Luisen estereotipoa... Egia da ondo bizi garela. Herri txikietan apaizaren papera asko baloratzen dute. Euskaldunon ohitura da, zerbait ospatzerakoan afari eta bazkari bat egitea. Eta zentzu horretan apaizaren presentzia ulertzen dut.

G.- Langabeziarik ba al dago apaizen artean?

E.- Ez, ateak ez ditugu ixten. Kanpoan lan egiten duen apaiz bakarra ezagutzen dut. Egoera dagoen bezala, ez dakit noraino den bidezkoa, beste lanpostu bat betetzea. Guk beste bizimodu bat badaukagu.

Loinaz Agirre eta Mikel Albisu

Urdaneta ikastetxeak eta Oianguren Institutuak bat egin dute

Eskolumeen beherakadari eta Logseri aurre egiteko asmotan, Ordiziako Urdaneta Ikastetxe Publikoa eta Oianguren Institutua fusionatu egin dira. Honekin, 2 urtetik 18 urte bitarteko eskaintza bateratu bat bermatuko da. Hezkuntza proiektu berbera izango dute bi ikastetxeek. "Gurasoek kezka handiak izaten dituzte, OHO bukatu eta ikasleak eskola ezagun batetik beste eskola ezezagun batera pasatu behar izaten dutenean. Erreformarekin gainera, 12 urterekin pasako lirateke bigarren fase horretara. Salto hori hezkuntza proiektu berberarekin garantizatu dago, eta gurasoak gustora daude erabaki honekin", adierazi digu Joserra Zalakin, Oianguren Institutuko zuzendariak. "Pribatuetan gertatzen den bezala, publikoan ere gauza bera egin behar genuela pentsatu genuen", gaineratu du Mari Karmen Yeboles Urdanetakoko zuzendariak. Era berean, arlo juridiko-legalean, arlo pedagogikoan eta kudeaketa arloan oinarritutako elkar-tze prozesua jorratzea erabaki dute, "Ordiziako Euskal Eskola Publiko bakarra sortzeko helburuarekin". Ikastetxearen ezaugarriak euskalduna (B eta D ereduak), aniztasuna, hezkidetzailea, publikoa, integratzailea, berritzailea, plurala, elkarkidetzatzailea eta autonomia dira.



Joserra Zalakin eta Mari Karmen Yeboles.

Dena den, "bi eskola batzorde eta bi zuzendaritza talde mantenduko dira. Kudeaketa demokratiko eta partehartzailea izango du eta parekidetasun printzipioan eta zentruaren autonomian oinarrituz funtzionatuko du", zehaztu dute. Horretarako Organo Goren bat sortuko da irailean, "beharrak, irakasle perfilak... fusioaren kontrola bermatzeko". Udalak, guraso elkarteak, irakaslegoak, ikasleak, aholkularitza taldeak eta enpresek osatuko dute Organo Gorena.

700 bat ikasle eta 3 zentru izango dira. 96ko irailean sartuko da errefor-

ma martxan, eta hurrengo ikasturtea prestaketarako urtea izango da. "Urte gogorra izango da", aitortu dute. Irakasleek beharrezko berziklaketak egin beharko dituzte, "zenbait gauza berriak direnez. Konpromezuari aurre egiteko irailetik hasiko gara Hezkuntza Ordezkaritzako kide batekin lanean".

Bi ikastetxeetako zuzendariak azpimarratu digutenez, "proiektu hau ez da itxia, inguruko herri eskolei ateak irekita uzten zaizkie".

 Loinaz Agirre



Nafarroa Etorbidea, 9
Tfnok: 88 94 82
20200 BEASAIN

TAPIZ ETA GAINETZADURA
TAILERRA

B I O K, C. B.

Zoruetako moketak, parketak, zintasola, e.a.

Ezkiaga Etorbidea, z/g.
Tfnok: 88 80 22 - 88 79 17

BEASAIN



**LANCIA
ETXE - AZPI**

☎ 88 10 61 - 88 29 46
ORMAIZTEGI



HIZKUNTZA

**Ingelesa, Frantsesa,
Alemana**
Ikastaro trinkoak
Uztaila eta irailean

Zai gaude!

Maila eta adin guztiak
20 ordu 11.000 pzta.
40 ordu 19.000 pzta.

Kale Nagusia, 21
☎ 161727 BEASAIN

Kutxak bulego berria

Lekuz aldatu dute bulegoa. Orainarte Samartingo Plazan, Urzelaietanean egon den bulegoa itxi eta "Piñane" ondoan egin duten etxe berrira eraman dituzte trasteak eta diruak. Zerbitzu hobea izango dugu. Besteak beste, leku gehiago eta kutxa-zain automatikoa. Inaugurazioa San Martzial egunez egin zuten. Aukeran, kotxea uzteko leku falta. Aspaldikoa dugu herrian "Kajarrosa". Badakigu azkeneko gerran, 36an itxi egin zutela eta 1945ean, ilbeltzaren 28an ireki zutela Arrondoko Kamiñon. Pedro Zurutuza zena izan zen ajente.

Gusto askora daude Martin eta Joakin. Urte askotarako!

Gabillene berrituko

Aurpegi eta barru berriak izango ditu laster garai bateko Mertzendaria mojen eskalak. Berehala hasiko dira lanak eta Elizaren nahia da datorren kurtsoa hasierako pronto egotea. Teilatuak eman-gu du lan gehien, Jexux bikarioak esan digunez. Egitura ondo omen dauka eta gelak aprobetxatu egingo dira. Puska berririk ez zaio erantsiko momentuz behintzat. Aipatu genuen kolonia-leku edo bihurtu nahi zutela baina asmo hori alde batera utzi da. Orain kristau hezi-



ketarako ekintzetxe bihurtu nahi dute batez ere baina ahalik eta irekiena, ahalik eta aktibitate gehien egiteko aukerarekin. Gauzak ondo, probetxuzko etxea geratuko da, Joan Barandiaran zenak Elizari utzi ziona.

Herri Batasunak ezetz

Oposizio izango da. HBk ez du parte hartuko Udaletxeko gobernuan. Alkatetxak eta Herrigintzak, Mendia eta Kultura eskeini zizkieten HBri baina ezetz erantzun du, bere iritzian Alkatetza kendu zitzaiolako.

Datorren astean egingo den Plenoan, sail eta ardura banaketa egingo da Herrigintza eta EAren artean.

Marikarmen Aranburu

Amaitu ditu andereño lanak. 25 urte pasa ditu gure artean, Gabillene zaharretik berrira. Gehienetan adar okerrak zuzentzen. Irailean egingo diote ongi merezitako omenaldia. Suerte on, bizimodu berrian Marikarmen!

2 urtekoak eskolara

Datorren ikasturtetik aurrera eskolara bidean izango ditugu. 8 neska-mutiko hasiko dira, guraso-talde batek halaxe eskatuta. Goizeko 10.30etatik 12.30etara, bi ordu.

Udal liburutegia

Ermenteriko Iñigo liburuzainak esan digunez, udan bi orduz egongo da zabalik liburutegia: goizeko 11etatik ordu batera. Oporrak abuztuaren 7tik 30era.

Mendi irteera

Kirol Elkarteak antolatuta. Uztailak 9 goizeko 8etan. Maomendiko Pago Haundira. Paga neurtuko dute. Irteera Lizarraustitik, Malkorburu gaina, Ubeiko Leizea, Ubeiko Jentilarriak etabar ikusiz. Buelta ikusgarria.

Aizkoate Elkarte

Gaztetzeko asmoz dabil herriko elkarte beteteranoena. Aspaldian bazkide-kopurua mugitu gabe eduki ondoren, 10 bazkide berri onartzeko prest daude. Horrekin batera, garbiketa-lanak egiteko pertsona bat behar dute.

Heriotza

Iztatorren bizi zen Arbilletako Joxe Auzmendi Arratibel. Garagarriaren 29an hil zen. 86 urte. Atsekabeen lagun senideak.



 Jon Aizpurua

San Andres ermittako gurutze gotikoa berriro ikusgai

Gurutzea bera gotikoa bada ere, kris-toak ezaugarri erromanikoak ditu. Euskalerrian era honetako gurutze gehiago badira, baina egurrean, mantentzen den bakarrenetakoa da. Duela 10en bat urte berriztatu zenetik ermittatik erretiratua egon da. Orain, bere betiko lekutik aldatuta erraja barruan jarri dute 2. zaharberritu baten ondoren. Guzti honen ardura Sindy Santiago berriztatzailer eta arte aplikatuen irakasleak eramandu. Pipiaren kontrako tratamendua emateaz gain, hondatuak zitu zenbait zati estali, falta zuen piezaren bat edo beste jarri, eta jatorrizko kolorea ere ateratu dio. Errajari berriz, gurutzearekin bat datorren brontze itxura eman dio, guztia biltzen duen egurrezko markoari ere tratamendu berezia emanez. 2.fase batean, eta dirurik bada, balio artistiko handia duten San Andres, Santa Luzia eta San Bizente- ren irudiak zaharberritzeko asmoa dago.

Herriko kirolariak protagonista

● Martin Alustiza pelotaria Elkororekin batera txapelketa bikaina burutu ondoren, Euskadiko txapeldunorde geratu da. Bestalde, ekainaren 23an Iñaki Artola eta Ibon Etxeberria afizionatuek Irungo "Gurpil kirolak" torneoa irabazi zuten.

● Arkaitz Sodupe gazte mailako txirrindularia, ekainaren 24ean Olaberrian amaitu zen etapa irabazi ondoren, bigarren gelditu zen Gipuzkoako itzuliko sailkapen nagusian.

● Futboleant, Luixito Garmendia Sestaon eta Aitor Leturia Beasainen 2.A mailara igotzeko promozioan aritu dira. Luixitok igoera lortu du Sestaorekin. Batak zein besteak datorren denboraldian beren taldeetan jarraituko dute.

● Ekainaren 10ean Euskadiko XIV. Eskolarteko txapelketan, pisu jaurtiketako proban Maite Telleria Euskadiko txapeldun izan zen infantil mailan 9,50 metroko jaurtiketa egin ondoren.

● Ordiziako Guraso Elkartek antolatuta martxotik ekainera ospatu den XIII. eskolarteko olinpiadan, eta Xabier Intxaustiren gidaritzapean, Laiotz Herri Eskolako ikasleek 28 domina lortu dituzte pelotan, atletismoan, futbitoan, mahai tenisean, arrantzan, txirrindularitzan, xakean eta igeriketan.

Ikus-entzunezkoak gauez plazan

Elorri Kultur Elkartek antolatuta uztailearen 17tik 21era mendi historia eta bidaiei buruzko ikus-entzunezkoak izango dira herriko plazan gaueko 11etan. Informazio gehiago agendan.

Bestalde, Joxe Ramon Agirre "Marron"ek egin dituen 6 kontinentetako gailurren eta lurraldeen "bilduma lana", uztailearen 17tik 23ra egongo da ikusgai Kultur etxean, egunero iluntzeko 19,00etatik 21,00etara eta asteburuan 12,00etatik 14,00etara ere bai.



Eskolarteko olinpiadan parte hartu dutenek 28 domina lortu dituzte: urrezkoak 8, zilarrezkoak 7 eta brontzezkoak 13.



Pasa den ekainaren 26an ireki zuten igerilekua uda parterako. Iaz bezalaxe, Jon Gotzon Osinalde, Iñaki Ormazabal eta Gorka Izagirrek hartu dute taberna. Sokorrista lanetan berriz Aitziber Etcheberria eta Beñata Elorza arituko dira.

“Villafranca proba” laguntza beharrean

Azken urteotan gertatu ohi den bezala, aurtengoan ere diru falta da “Villafranca Txirrindulari Proba” ospetsuaren inguruko eztabaida gaia. 72. edizioa izango da aurtengoa eta 11 milioi inguruko aurrekontua du uztailearen 25ean korrituko den lasterketa honek. Instituzioetatik jasotzen den dirua ez da nahikoa izaten aurrekontua osatzeko eta Txapel-Gorri Elkartekoek, antolatzaileek, inguruko elkarte, denda eta zaleengana jotzen dute era batera edo bestera laguntza lortu asmoz.

Etorkizunerako badarabilkite ideia bat buruan: babesle izango diren bazkideak sortzearena txirrindulari probaren alde zerbait egiteko, batez ere ekonomikoki. Ideia bazkide bakoitzak 5.000 pezeta inguru jartzearena litzateke eta aurrena Ordiziatik hasi nahi badute ere Goierri osora zabaltzeko asmoarekin egindako ekimena litzateke.

“Villafranca Proba” Estatu mailan egiten den egun bakarreko probetatik zaharrentariko da eta pena litzateke berau bertan behera uztea. Gainera, aurrean Frantziako Tour-a 23an bukatuko denez, Estatuko txirrindularirik onenak hemen ikusteko aukera izango du-

gu. Antolatzaileen asmoa 100en bat txirrindulari elkartea izango da, Estatuko 6 talde eta atzerriko beste 3rekin. Estatuko seiek konfirmatu dute euren partaidetza eta atzeritik Mapei eta Santa Clara etortzekoak dira. Hirugarrenaren bila dabilta orain.

Lagunarteko futbol txapelketa

Anexoan jokutzen den eta gure artean partaidetza eta arrakasta handia duen lagunarteko futbol txapelketa amaitzear dago. Aurtengo XVI.a da eta aste bukaeran jokaturako finalerdien ondoren, datorren igandean hilaren 9an, finala jokaturako duten bi taldeak zeintzuk izango diren argitu zen. Alde batetik Tximista Sagardotegia eta Laket izan genituen aurrez-aurre. Garaileak Tximista-koak (Haydaos) izan ziren eta lehen aldiz finala jokatzeko aukera izango dute. 5-leko emaitzaz nagusitu ziren, nahiko erraz beraz, eta golegileak Raul, Txofo eta Txus izan ziren, azken bi hauek bina gol egin zituztela. Laketekoen gola Puertasek sartu zuen.

Bestaldetik Txiki Taberna eta Orlegi Pub-a aritu ziren. Bustuntza auzoko

Txikikoak nagusitu ziren hemen 2-0ko emaitzarekin. Golegileak Jauregi eta Auzmendi izan ziren. Honenbestez Txiki Tabernakoak beste behingoz finaleran izango ditugu eta iazko txapela defendatu beharko dute.

Finalaren aurretik 3-4. postuak erabakiko dira. Ondoren, urtero bezala, denok espero dugun bazkari handia egingo da herriko frontoian, txapelketan zehar parte hartu duten 19 taldeetako jokalaria elkartuko dituen bazkaria. Trofeo eta txapelen banaketa egin ondoren ziur gaude txapelketan zehar taldeen artean izandako “pike” guztiak ahaztu eta lagunarteko giroa nagusi izango dela herriko tabernetan zehar egingo den poteo herrikoian.

Piraguismoa

Majori Kiroldegiak uztailearen 10ean piraguismo ikastaroa jarriko da martxan. Astelehentik ostiralera bitartean izango dira klaseak eta larunbatetan Kontxara joango dira. Interesatuok dei kiroldegira edo 889333 telefonora.

 Aitor Calvillo

IDIAZABAL

Lana eta aisialdia bat eginez...

Uda honetan “izaldirrok” denborapasarako izango ditugu hamaika aukera. Bai horixe! Batetik Kultur Batzordeak antolatu dituen ekintzei buruz egin behar dut aipu: hasi mendiko bizikleta irteeratik, segi uretako gimnasioarekin, hipikako ikastaroarekin jarraitu eta eskalada saioetaraino. Denetik egiteko aukera dugu herrian.

Hori gutxi balitz, oraindik herrian arrotza zaigun ekintza bat proposatzera dator Mendi Elkartea. Irailarako auzolandegi bat antolatzeko asmoa dago, aste beteren buruan Ursuaran aldera joan eta Etsegateraino iristen den galtzada zahar bat garbitu eta berroneratzeko proposamena luzatu baitu. Hau esan bezala, irailean izango da, zehazki

7tik 14ra. Izena uztailearen 14a bitartean eman behar da Kultur Etxean.

Gazteei zuzendua dago eta beronen helburua zerbitzu lana eta aisialdia, biak bat eginda erabilzen ikastea da. Goizez lan egin ondoren arratsaldean denborapasarako saio batzuk prestatuko dira, izan jokoak, txangoren bat autobusez, mendi irteerak... Beraz, aukerak ez dira gutxi orain gogoia eta ausardia behar da, udaletxera hurreratu eta bertan zure izena emateko.

Kirol zerbitzuen prezioak

Udarekin batera, igerilekuak irekita daude jadanik. Sarrera arrunta, 3-14 urte bitartekoek eta langabetuek 185 pezetan dute. Uda osorako txartela be-

rriz, 2.000 pztan. 15 urtetik gorakoentzat 315 pztan. kostako da eta txartela 3.500. Familia osoentzat txartelak ateratzeko prezio bereziak ere badaude, 5.600 eta 7.000 pztan. bitartean. 3 urte arteko haurrek eta 65-tik gorako jubilatuak dohainik izango dute sarrera.

Igarondo pilotalekuaren erabilpena berriz, orduko 750 pezeta kostako da. Eta dutxaren erabilpena 125 pztan.

Zelaako Kiroldegiari dagokionez azkenik, sarrera arrunta 275 pezetakoa da, eta urte osorako bonoa 10.000 pezeta. Kantxaren alokamendua (ordu bete) 4.000 pezeta kostatzen da.

 Aloña Galarraga
GOIERRITARRA-17

Liernira erromeria igandean



Ormaiztegiko herriak urteroko ohiturari jarraituz aurtan ere Liernira erromerian joateko asmoa du. Uztailaren 9an izango da eta egun horretarako egitarau zabala prestatu da.

Goizeko 11.30etan salda beroa banatuko da nahi duten guztientzako. 12etan Lierniko Amaren ermittan Meza nagusia ospatuko da. Ilean haurrentzako jokoak izango dira. 2.30etan bazkari herrikoia prestatuko dute Ar-

zak eta bere lagun taldeak. Aurtengoan marmitakoa jateko aukera izango da.

Arratsaldean herri kirolak izango dira. Gure artean Aimar Irigoien 9 urteko harri jasotzailea izango dugu. Arratsaldeko 6etan beronek 28 kiloko kubikoa, 40 kiloko kubikoa eta 25 kiloko bola esferikoa jasotzen duen abilezia erakutsiko digu.

7retan sokatira izango da, bertako irabazleentzako 2 arkume izango dira saritzat. Eguna alaitzeko Aramako trikitilariak izango dira.

Haurrentzako udaleku irekia

Aurtan ere Udalak, Udaleku irekia antolatu du uztailaren 10etik 21era. Bertan 4 eta 12 urte bitarteko haurrak elkartuko dira egun horietan, hainbat gauza eginez une alaiak igarotzeko as-

moz. Ordutegia arratsaldeko 3.30etatik 7.00etara bitartekoa izango da.

Izenemateko epea uztailak 6, osteguna, izango da, epez kanpoko izenik ez da onartuko. Haur bakoitzeko 5.000 pezeta kostako da, famili bereko bi izanez gero 9.000 pezeta eta hiru izanez gero, 12.500 pezeta. Argibide gehiago behar izanez gero, liburutegira jo dezakezue arratsaldeko 5etatik 7etara edo 16 00 74 telefonora deitu.

Traste zaharren bilketa

Altzari, elektragailu eta baliorik gabeko traste zaharren bilketa 1.go eta 3. ostiraletan egiten denez, uztailak 7 eta 21 izango dira zerbitzu hori jasotzeko egunak. Dena den, zerbitzu hau jasotzeko aldez aurretik 16 15 90 telefonora deitu behar da, trasteak zein puntutan utziko diren adierazteko. Traste zaharrak bezperan atera behar dira.

 Aitziber Murua

ZEGAMA

Zegamako Zeramika-Eltzegintzaren inguruan

Gregorio Aramendi Arregi, euskal zeramikari edo eltzegile profesional bakarra, iaz joan zitzaigun gure artetik. GOIERRITARRAren 64.ean jarri genituen hari buruzkoak. Hilzorian zegoen lanbidea eta heredentzian hartu zuen Zegamako industria piztu nahi izan zituen bere azken urteetan. Hark utzitako zeramika lan apurrak (egin zituenaren konparazioan) etxerako gorde zituzten bere ondorengoek, ezer saltzeko asmorik ez baitzeukaten orain hilabete batzuk. Proiektu serioen bat aurkeztuko balie instituzioren batek (Zegamakoak bazituen asmoak...), euskal tradiziozko eltzegetzak segidarik izango lukeela genion.

Orain dela gutxi, berriz, horren inguruko berri batekin topo egin dugu periodiko batean: Azkoitiko Luis Arzallusek, "Errexil" bere jaiotetxean, zahar-kin bilduma ikaragarria dauka, tartean **18-GOIERRITARRA**



euskal zeramikazko ale mordoa. 400 baino pieza gehiago ditu (jana egiteko erabiltzen zirenak eta 3 heldulekukiko ontziak), etxez-etxe eta baserririk baserri ibilitako ijitoei erositakoak. "Garrantizatu dezaket bilduma osoa osatzen duten aleak Zegaman egin zirela. Bere bainuaren txuritasunagatik zen fama-tua Zegamako artesautza, beste leku

batean lortzea ezinezkoa zelako", zioen azkoitiarrak. Garrantzitsuen, harrotasunez zioen, berri-berria dagoela bilduma, nahiz eta urteak eduki edo hauskorra izan.

Kolekzio honetako estimagarriena, Luisek museo txiki bihurturik daukan bere etxeko tabernajetxean ikus daiteke libre asko; leku guztietatik etortzen omen zaio jendea horiek ikustera. Aidanez, Baionako Euskal Museokoak eta Belgikako Brujasko antikuarioak ere etortzen zaizkio, baina berak argi dauka "nere piezetako bat ere ez dela hemendik aterako, ez daukadan afizioagatik bakarrik, hemengoa den guztiari diodan maitasunagatik baizik". **Zegamako ondarea ez al da galduko!**

 Jon Mikel Arano

Soinu Zahar txapelketa

Pasa den asteburuan Gipuzkoako IV. Soinu Zahar Txapelketa ospatu zen Beasainen. Txapelketa honetara 7 eta 15 urte bitarteko 34 neska aurkeztu ziren. Lezotarrak nagusitu ziren, banaturiko sei sarietatik lau lortu baitzituzten. Beste biak Irungo dantzariarentzat izan ziren.

Txapelketa bi mailatan banatu zen. Alde batetik 7 eta 11 urte bitartekoak. Hauek larunbateko kanporaketan 'Puntamotz' soinu zaharra dantzatu behar izan zuten, igandeko saiora pasa ziren hamaseiek, 'Txakolin' eta 'Ormatxulo' dantzatu zituzten. Bigarren mailan 12 eta 15 urte bitartekoek parte hartu zuten. Larunbateko kanporaketan 'Ormatxulo' eta igandeko finalean 'Boastitzea' eta 'Ehun dukat' dantzatu zituzten. Igandeko saioa erabakiorra izan zen, larunbateko puntuazioa eta igandekoa batu ondoren lezotarrek bi mailetakoen lehenengo bi sariak eskuratu zituzten. Lehen mailan irabazlea Iratxe Etxegoien izan; Leire Irazuegi 2. eta Leire Herrera 3. Bigarren mailan lehena Eluska Zabaleta izan zen, 2. Leire Saldias eta 3. Amaia Berrondo.

Epaimahaikideen arabera partehartzaileen erdiek nahiko maila erakutsi zuten, eta besteak hasberriak zirela asko nabari zen. Baina garrantzizkoena aurrera jarraitzea da euskal dantzari bultzada bat emateko.

Soinu Zaharrak dantza pausorik gabeko doinuak ziren hasiera batetan. Iztuetaren eta bere garaiko doinuak hartu, eta lege batzuen arabera pausoak ezarri zaizkie doinuei. Soinu Zaharretan dantzari bakoitzak pauso ezagun ezberdinak erabil ditzake, baina konpas jakin batzuetan ebaketa bat egin behar da, eta ebaketa nola eta noiz egin dantzari guztientzat berdina da. Dantzaren egitura jarraitzea da ga-

rrantzizkoena baina horretaz gain, kontutan hartzen dira erabilitako pausoen aberastasuna eta garbitasuna.

Pelota

Ez dabilta makal gure herriko pelotariak. 40 pelotari inguru ari dira (kategoria edo maila ezberdinetan) Jose Aranburu arduranaren esanetara. Astearte eta ostegunetan egiten dituzte entrenamenduak Kiroldegian. Pelotariak hainbat txapelketa jokatzeko dituzte urtean zehar: herriarteko txapelketa, Kluben arteko txapelketa eta baita herri ezberdinetakoak ere. Azken aldian, Usurbil, Añorga, Intxaurren, Aramaio eta Azpeitiako txapelketetan parte hartu dute. Azpeitian kadeteak finalaurrekoetan daude.

Dena den, ikusleak ere garrantzitsuak dira pelota partiduetan eta dirudienez, Beasainen ez dago zaletu gehiegirik. Gutxienez, gazteak prest daude pelotari eskuz jotzeko eta hori ez da gutxi, gogo dagoen lekuan zailtasun guztiak gainditzen baitira.

Ezkiaga auzo-etxearen maskota

Ezkiaga Auzo-Etxeak "Maskotaren bila" lehiaketa antolatu du. Lehiaketa honetan 5 eta 16 urte bitarteko gazteek parte har dezakete eta marrazkiak Auzo-Etxean aurkeztu beharko dira ostirala baino lehen. Marrazki irabazlea



izango da Auzo-Etxeak aurrerantzean izango duen maskota. Sari bakarra izango da. Hala ere, epai-mahaiaren erabakiz gerta liteke irabazlerik ez egotea.

Maskota bilatzen hasteaz gain, ludoteka osatzeko asmoa ere badute. Hori dela eta, arropa eta jostailu biltzaile bat egin dute. Oihal puskatuak, izara zaharrak, altzari txikiak, estanteriak eta beste zenbait gauza jaso nahi izan dira arropa biltzailearen bidez ludotekako "Mozorroen Txokoa" antolatzeko asmoz. Jasotako materialaren artean aukeraketa bat egin ondoren erabiliko ez den guztia berziklatu egingo da. Jostailu biltzaileari dagokionez, puskatuak jostailuak eta jostailu zaharrak bildu dira. Jasotako jostailuak garbitasun eta oinarritzko erizpideak jarraituz konponduko dira, era honetara Ezkiaga Auzo-Etxeko ludotekak bere eskaintza zabaldu ahal izango du.

 Izaskun Salazar

Lirain

Lurrindegia eta Opari Gaiak

San Inazio, 14 ☎ 88 93 90 BEASAIN

LEIAR
KRISTALDEGIA



ERAKUSKETA: Ezkiaga Pasealekua z/g ☎ 888824
BILTEGIA: Salbatore Industrialdea. ☎ 886070
BEASAIN

ILEAPAINDEGI
MISTOA
Xerlo

Joan Iturralde, 5-7 (solairu-arte) ☎
Tfnoa.: 16 11 05 BEASAIN

Ekain-ero ikastaroen balorapena



ralak, gai kutsakorrik gabe-koak, erabiliz, pazientzia ugariz, ederki manejatu ditu Lurdes irakasleak.

Aho-soinua: 9 lagun badi-
dira Lazkaoko "Pilar-monika
ortxestra" osatzen dutenak
eta Andre Madalen, Neska
zaharrak eta Egun da Santi
Mamiña behintzat txukun eta
kurioso jotzen ikasi dute,
"Borraska" maixuari esker.

Egur-pintaketa eta tiantaketa:
"Made in Txina" jartzen ez duen lore
koloretsuz apaindutako egurrezko ku-
txatxoren bat oparitzen badizute,
egur-pintaketa eta tintaketa ikastaroan
parta hartu duten 34 lagunetako bat
izan daitekeela "egile-artista" pentsa
dezakezu. Kutxatxoak, platerak, zo-
kaloak, pertxak, argimutilak, aulkiak,
aizkolariek ebakitako ezpalak... eta zer
ez da margotu! Tinte eta barniz natu-

Uztaila bero Maizpiden

Oraingoan ere jende ugari etorri da
Lazkaora euskara ikasteko asmoare-
kin. Aurtengo Udako Euskal Ikastaroa
21.a dugu jadanik. Ikastaro hauen as-
moa beti izan da klasez kanpo ikasleak
lagunartean eta herriko jendearekin
euskaraz hitz egitea, erlazionatzea.
Hau posible izateko ekitaldi ugari an-
tolatzen dituzte, eta giro ederra izaten
da herriko kaleetan uztailan zehar.

Aurten nobedade bezala ekitaldi gehie-
nak plazan izango dira. Berri zehatza-
goa egutegian aurkituko duzu.

LGA erreka garbitzen

Ekainaren 17an Lazkaoko Gazte
Asanbladakoek bigarren erreka garbi-
keta egin zuten. Hor aritu ziren gazteak
goiz guztian zehar Agauntza errekatik
hainbat eta hainbat zabor ateratzen.

Benito Lertxundiren kantaldia

Uztailaren 15ean, Benito Lertxundiren
kantaldia izango da polikiroldegian
gaueko 10,30etan. Kantaldi hau Am-
nistiaren Aldeko Batzordeek antola-
tzen dute. Aurretik herriko festetan
antolatu nahi izan zuten, baina egun
hoietan ez zuten Udalaren baimenik
izan eta uztailerarte atzeratu zuten.

✍ M. A.

EZKIO-ITSASO

Itsasoko plazaren inauguraketa

Udalerri guztietan bezalaxe Ez-
kio-Itsason ere ekainaren 17an osa-
tu zen Udala, hurrengo lau urtee-
tarako alkatesa berria izendatuz:
M. Isabel Olanga.

Igandean berriz, Itsasoko pla-
zaren inaugurazioa zela medio,
aurreko agintaldiko alkate eta zine-
gotziek agurra eman eta berriek
lanari ekiteko aukera izan zuten.
Herriar gehientsuenak eta berritze
lanean buru izan diren teknikariak
bertan zirela, Korpuseko Meza eta
elizatarian zehar prozesioa egin ondo-
ren, apaizak plaza berritua bedekatu
zuen dantza egin eta osasunarekin urra-
tzeko esanez. Janari-edarien artean Os-
tatan amaitu zen ekitaldia.

Artzain Txakurren Txapelketa

Ezkio-Itsasoko Artzain Txakurren
txapelketa antolatzeke batzordekoa
den Juan Manuel Aldanondok jakina-
20-GOIERRITARRA



razi digunaren berri emango dugu se-
gidan:

"Gipuzkoako Artzain Txakurren
Txapelketa martxan jarria da eta uztai-
laren 30ean Mandubiako zelaietan
izango denez, kanporaketarako tokiak
eta txakurrak honela banatuta daude:

* Lehenengo kanporaketa ekainaren
25ean izan zen Irunen eta txakur hauek

parte harte zuten: Txati (Arrillaga-
rena), Riki (Larrañagarena), Turko
eta Nere (Plazaolarenak), Lagun
(Anduezaarena), Bat (Madinabei-
tiarena) eta Lagun (P. Seguirolare-
na).

* Bigarren kanporaketa uztailaren
16an Urrategiko (Azkoiti) zelaie-
tan izango da ondorengo txakur
hauekin: Mendi (Plazaolarena),
Lista (Arretxerena), Nabarro (Sa-
gastumerena), Txiki (Arrillaga-
rena), Alai (G. Seguirolarena) eta La-
gun (Larrañagarena)".

Aurten beraz, Mandubian izango den
txapelketa eguna irailaren lehen igan-
detik uztailaren 30era pasatu behar izan
da, Legazpiko antolatzaileen egoskor-
keria dela eta, bertako Artzain Eguna,
irailaren lehen igandean, mugiezina
baitute.

✍ Pilare Mujika

Alamartsoa


Sustraiak 1976an dituen usadioa zeharo finkaturik dago jadanik gure herrian: San Joan bezperako festa edo erromeria. Hasiera garai hartan alkate zen Joan Mari Etxeberriaren eskutik izan baldin bazuen ere, aurtan benetako protagonista herriko Gazte Asanblada izan da. Urtebete honetan buruturiko beste gauza askoren artean, ospakizun honen erroak aurkitu nahi izan dituzte herriko gazteek, Emeterio Sorazu eta Joxe Mari Satrustegi antropologoekin egon ostean, festa aurreko egun batean hitzaldia antolatu zutelarik.

San Joan bezperako festari berari gagozkiolarik, esan dezagun Lazkao-menditik behera gazte koadrila bikaina han azaldu zela, literna eta zuzi, herriko plazan, afalondoan. Herriko baserri eta jendeari buruzko diapositbak eskainiz, antzerki kutsuko dantzari ekin zioten, suaren jiran. Oso emanaldi polita izan zen.

Protesta txiki bat ere luzatu zuten gazteek plazako mikrofonoetatik. Dirudienez, azken mementuraino isilgordean nahi zituzten kontuak hedatu baitzituen egunkari batek, protagonismoaren haria apur bat desbiatuz, gainera. Dena dela, intzidente horri ez diote garrantzirik eman nahi izan, eta Gazte Asanbladaren izenean lanean segitu nahi dutela adierazi diote berriemaile honi.

Musika

Zaldibiko Musika Taldeak aukera ezin hobea eskaintzen du musika-tresnaren bat jotzen eta solfeoa ikasi nahi duten bost urtetik gorako haurrentzat. Bilera egina dute, gai honen inguruan herrian zer-nolako giroa dagoen jakiteko. Baita ere, beraz, erantzuna baiezkota izatea eta interesaturik zaudetenok adi egon,



ildo horretatik sor litezkeen albiste berrien zain.

Komisioak

Duela astebate-edo osatu ziren udal komisioko berriak. Komisioko informatibo hauek irekiak direnez, beraietan lan egin duten herritarrei dei egiten zaie udaletxetik pasa daitezen, izen ematera, uztailaren 7a baino lehen. Osatu diren komisioko berriak honako hauek dira: Hazienda eta Administrazioa; Hiritikintza; Zerbitzu, Osasun eta Ongizate Soziala; Kultura eta Kirola; eta Mendi, Baserri eta Ingurugiroa.

Pilota oihartzunak

Behin behar eta, Zaldibiaren izena altu utzi dute oraingoan ere herriko pilotariek Irun eta Azpeitian. Aritz Jauregi eta Aitzol Sukia, daramaten martxa onari eutsiz, Irungo Kurpil Kirolak sarian txapeldun atera dira, gazte kategorian, Aranazko Agesta eta Erran-

donea, 22 eta 16, bota ondoren. Meritu handiko txapela dela esan behar, zeren eta kontrarioak ez baitziren nolanahikoak.

Bestalde, lehiaketa berean, Harriet Mendizabal eta Gerizpe Iraolak txapeldunorde izatea lortu dute, Oiarzungo Treku eta Elizegiren kontra 18 eta 7 galdu ondoren.

Azkenik, beste garaipen baten berri eman behar dugu. Oraingoan Aratz Mendizabal eta Ibon Gurrutxagaren izenak aipatu behar ditugu. Hauek Azpeitian atera dira txapeldun, alebin kategorian, Arrieta eta Larrañagari 18 eta 7 irabazi ostean.

Mutilen gorakada hau ospatzekoa da, baina ezin ahaztuko gara Pilota Eskolan hainbat egiten ari diren horietaz, isileko lan hori bultzatu ezean ez baitago fruiturik eta egunkarietarako gairik. Zorionak denoi!

 Rufino Iraola



BERRIZ ARANBURU

ERROPADENDA

Nagusia, 8
Tel: 88 04 53

BEASAIN

EUSKAL KLASIKO ZAHAR-BERRI BATEN AURKIKUNTZA:

Jose Felix Amundarain zegamarraren "dotriña" zibila

Apez Vicario Dr. D. J.F.A. Guipuztarrac" 1820an euskaratuta-ko Cadizko Konstituzioa edo "Jaquin-bide Iritarautia" bu-ruhauste ugariren iturri izan da azken urteotan zenbait espezialistentzat. Be-re garaian argitaragabe geratu zen ida-zlanaren autorearen zein zen jakin denez, ezagutzera ematen dugu, J.F. Amunda-rainek euskal idazleen artean leku bat izan dezan.

Idazlana eta testuingurua

Eskuizkribua Migel Antonio Zumala-karregi idizabaldarrari (Tomas general karlistaren anaia; liberalen goi-kargua, Cadizko Gorteetan Gipuzkoako or-dezkari eta Justiziako Ministro izate-raino iritsia) eskainia dator. Laudorioe-kin hasten du eskaintza luzea, lehen 5 orrialdeak hartzen dituela, garaiko le-kukotasun gihartsua ematen digula. Galde- erantzunen formularen bidez ematen da espainiar Konstituzio horren berri. Bukaeran umil aitortzen du "Be-rrorren Servitzari, eta Capillauric chi-quiena" dena. Larramendiren hiztegi-az kutsaturik egon arren, gipuzkera jato-rreraz idatzi zuen. 108 orri bi alderdie-tatik idatzirik eta letra garbiaz. "Itxura

*Jaquin-bide Iritarautia
Españiako
Neurguidaren, edo Constitucio
beziaren onara adreztatua
Erritarren anguidorarako,
Gazteen icas biderako,
eta
Escuela-maijuen uxorako
Evidentiari Eusquerara itzultza
Apez Vicario
D. D. J. F. A. Guipuztarrac.*

1820. Urtean.



denez euskaraz idaztera ohitua dagoen idazle onarena, ematen du bapatean itzultzen zuela", Juan San Martin eus-kaltzainaren hitzetan.

Ormaiztegiko Zumalakarregi Mu-seoko Mikel Alberdik jarri gintuen pistaren gainean: 87.ean Hondarribia-ko Kaputxinoen liburutegian aurkitu zuen J.S.M.-ek 1820an euskarara itzultitako katixima zibikoa. Idazlanaz eta bere testuinguruaz txosten bat argi-

taratu "Euskera"-n eta Euskaltzaindiari argitalpentxo bat egitea proposatu zion. Cadizko Konstituzioaren oroi-tzapen txarra genuela euskaldunok eta ezezkkoa jaso zuen. Eibartarrak gogor erantzun zion: "1820- 23ko 'trienio li-beralak' (eta ez 1812ko Konstituzioak) egin zigula kalte, eta halan izan balitz ere, mereziko zukeela euskal literatu-raren mesederako den neurrian".

Gauza horrela gelditu zen, harik eta Arartekoa egin zutenean, diru-kopu-rutxo batez baliatuz, faksimilezko 200 aleko tirada zenbakitu bat egin zuen arte, bere kabuz. Alderdi, liburutegi interesgarri, unibertsitate eta erakun-deetan banatu zituen.

Bilaketa baten historia

Geroxeago, Gasteizko Elizbarrutiko Mintegiko liburuzaina den Angel Ibi-saterren eskuetara iritsi zen "Jaquin-bide..."a. Inprimakiaren katalogazioa zuzenena lortzearen inbestigazio ahalegin izugarriak egin eta gero lor-tzen du honek goierritar klasikoaren izena eta izana mendeen ilunpetatik ateratzea.

Oraintsu, berriz, Gerriko Ikerlan Sa-riketara iaz aurkeztu eta aurtan argita-

CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA

Guzti hau irudi berri baten hasiera baino ez da, profesionaltasun garbiko bidean.




Zuk badakizu Euskadiko Kutxak gogor diharduela euskal gizarte eta enpresagintzaren alde. Oso Kutxa geure-geurea dela. Euskal Herriko Kutxa. Baina, ezagutzen al duzu gure profesionaltasun -eta aholkamendu- maila.

Gazteentzat, esate baterako, onura gehiago. Familientzat, interes handiagoak kontu korrontean eta ohiz-ko libretan. Beste kutxetan baino gehiago.

Eta guzti hau irudi berri baten hasiera baino ez da, profesio-naltasun garbiko bidean.

Goierritar klasikoak



Pello Jose Aranburu

ratutako Jose Inazio Gerrikoren gaineko idazlanean Jose Felixen biografia bat eman zaigu (3 aldiz Ikerlan Sariketa irabazi duen Lazkaoko ikerlari lauokoteak gure pertsonai hau hartu berri du aztergai). Gure egitekoa dena lotzea besterik ez da izan.

Goierritar klasiko "berria"

Jose Felix Amundarain zegamarra 1755ean jaio zen. 13 urtez egin zituen zegamar honek goi-mailako ikasketak: Iruñeko Santiago Unibertsitatean Filosofia; Oñatiko Unibertsitatean Legeak eta bertako Akademiko, Lege eta Kanoi Sakratuetan Batxiler, Lizentziatu, Doktore eta irakasle; Valladoliden Kanoi Sakratuak, Batxiler eta irakasle, apaiz, halaber; Madrilgo San

Isidoro Erret Akademian Akademiko eta Diputatu; Erret Kontseiluak Abokatu-ikasketak; 1783an (27 urterekin) San Idelfonso Erret Kolejioko Doktore. 1784az geroztik, Zegama, Zerain, Ordizia eta Mutiloan apaiz, gizon gordina, sasoikoa zela.

Mutiloan apaiz "benefiziaria" izandako Gerrikorekin urteak egin zituen. Hura 'lurperatu' eta ordezkatu zuen erretoretzan Amundarain zegamarra. Gerriko segurarraren "Cristau Doctrina guztia esplicacioaren sayaquera"ren aztertzaile eta beronen testamentuko albazeaetako bat izan zen J.F.A. Urtebete lehenago zendutako Gerrikoren jarraitzaileetako bat zen zegamarra 1825an hil zen.

Eztabaidarako klabeak

Egun Lazkaoko Beneditarren Liburutegian aurkitzen da bere sermoi sorta. "Eskuartearen erabiltzeko parada izan dugu eta benetan penagarria iruditzen zaigu oraindik argirik ikusteke egotea; gure uste apalean, literatur baliorik badute; gure klasikoen artean jartzeko modukoa ere badela esatera ausartuko ginateke", dio Pello Joxe Aranburuk, Gerriko sariketan ohizkoa den irabazle-taldeko kideak.

Mikel Alberdiren iritziz oso interesgarriak dira bai sermoiak eta bai kaxima zibikoa. "Hor azterketa polita legoke. Sermoietan ikusiko da ze ideo-

logia azaleratzen duen, aurrez jakinik Amundarain liberala dela argi eta garbi, Madrilan ikasia eta ibilia. Agian, apaiz-lana besteak bezala egingo zuen, ezkutuan edukiz bere ideologia. Bestalde, horrelako itzulpena ez luke sekula bere garaiko abade batek egingo. Gainontzekoentzat 'pekatu' da Konstituzio hori. Migel Antonio Zumalakarregik ez lioke eskatu-ko beste edozein apaizei hori egiteko".

Pello Joxe Aranburuk, haren sermoi-sorta, kurrikuluma, noblezia-agiariak, e.a. ikertuta, zera dio botepron- toan: "Ez zaio nabari liberala denik. Hori aditu dut, liberala zela, baina, Gerriko eta Agirre Asteasukoa baino itxiagoa dakusagu. Garai hartako apaizen pentsakera berbera agertzen du. Apaizen asuntua guztietan ordezkari eta Goierrialdeko diputatu ere izan zen maizetan. Ondo ikusia eta liberal tra- zarik gabekoa, beraz".

Euskara du, azkenik deskubritutako klasikoak ere, altxorrik preziatuena. Gainera, Gerrikok baino maila hobea ematen du Amundarainek, dirudienez. Herri literaturan aberats gara, baina kultura modernoan (lege, historia eta gai juridikoetan batipat) urri antzean gabiltza. Euskal literaturarentzat ezin liteke ona izan XIX. mendearen lehen laurdeneko eskuizkribu bat argitaratu eta ikertu gabe gelditzea.

Jon Mikel Arano



ZEGAMA
OKINDEGIA

*Eskuz egindako
ogi naturala*

☎ 80 10 66
80 10 70 (Etxea)

Olaberria Kalea, 6
ZEGAMA

SALMENTA PUNTUAK:

Beasainen: Osaki belardendan, Igartza Oletako kioskoan, Begue janaridendan, Montoia harategian, Eroslen.

Ordizian: Altamiran, Martina Bustun- tzan, Osasun belardendan, Muño denda Urdanetan.

Zegaman: Kooperatiban, Maria Jesusen dendan, Arrondon.

Segurako Erosle eta Idiazabalgo Alda- nondon.



RENAULT

AGENTZIA

LAZKAO
GARAJEA

Senpere Industrialdea

☎ 882442-888901

Faxa: 888901

LAZKAO

LOINATZ
Taberna
Jatetxea

Bazkari, afari,
ogitarteko, pintxoak



Nagusia, 27 ☎ 88 20 07 BEASAIN

BIÑASPRE

USAINDEGIA

EDERGINTZA

OPARIAK

Kale Nagusia, 8
ORDIZIA

☎ 88 13 37

ESKOLARTEKO TXAPELKETETAN DOMINA UGARI LORTU DITUZTE GAZTETXOEK

Goierriko atletismoaren berpiztea

Goierriko atletek denboraldi bikaina burutu dute aurtengoan. Atletismoak krisia larria bizi bazuen ere, lanaren ondorioz "buelta" ematea lortu dute. Dominak iritsi dira Goierriara, eta baita ospea berreskuratu ere.

1976-1977 denboraldian sortu zen Ordizian orduko Villafranca U.C.-tik atletismo saila. Ordur gero Amaia Andres, Jose Felix Bartolomé, Jon Etxeberria... bezalako atleta handien lekuko izan da. Garairik emankorrena izan zen hura eta kirol minoritario hau Goierriin hedatu zen. Hala ere, ibilbide luzearen ondoren, eta azpimarratuko ez ditugun arrazoiengatik, krisi larrian sartu zen atletismoa. Hainbeste ilusio eta lanarekin lortutakoa pikutara joan ez zedin neurriak hartzeko momentua iritsi zen.

Berriro ikastetxeekin lanean hasi zen, Goierriko harrobiari indarra eta ospea itzultzeko helburuarekin. Ildo honetan lan eginez eta zenbait urtera, lehen fruituak biltzen hasten da. Atleta gazteen belaunaldi berrien sortzearekin, krisi garaia gainditu da.

1994-1995 denboraldi honetan susperraldia nabaria izan da, Gipuzkoako txapelketetan eskualdeko hainbat ikastetxek emaitza onak lortu baitituzte:



Beasaingo La Salle ikastetxeak 3. postua lortu du mutil alebinetan, Lazkaoko San Benitok 2. mutil infantiletan eta Ordiziako Jakintza Ikastolak 3. neska infantiletan. Hauez gain, beste ikastetxe hauek ere parte hartu dute: Ataungo J.M. Barandiaran, Segurako Laiotz, Zegamako Herri Eskolak, Lazkaoko San Prudentzio, Ordiziako Urdaneta eta Milagrosa eta Idiazabalgo Aita Iparragirre.

Goierrik gainera berriro Gipuzkoa

eta Euskadi mailako hainbat atleta txapeldun ditu, modalitate ezberdinetako finalistez gain. Aurtengo denboraldian 23 domina lortu dira Gipuzkoako txapelketetan, eta 4 gehiago Durango ospatu ziren Euskadikoetan.

Goierriko atletismoak bizi duen momentu gozo hau ez kasualitatea. Honen atzean oinarriko kirola bultzatu nahi duen pertsona talde baten lana eta esfortzua dago. Ikastetxe eta klubetan egiten den lan honek gazteen artean kirol hau hedatzeko aukera ematen du. Pako Urrestarazu (J.M. Barandiaran), Josean Aldanondo (San Benito), Jose Luis Elia (Aita Iparragirre), Xabier Insausti (Laiotz), Xanti Barrenetxea (La Salle-San Jose), Arantxa de Juan (Jakintza)... eta Ordizia Kirol Elkarte-ko Julio Garcia, Jon Etxeberria, Jon Aranburu eta beste zenbait monitoreen lana azpimarragarria da, hau guztia aurrera eramateko. Zorionak eman eta Gipuzkoako atletismoari horrelako zerbitzua eskaintzen jarraitzeko animoak eman nahi dizkiegu lerro haue-
tatik.

 Julio Garcia



Gipuzkoako txapelketan lorturiko dominak

IZENA	IKASTETXEA	PROBA	DOMINA	MARKA
Miren Hernandez (I)	Jakintza	2.000 m. martxa	Zilarra	14'50"2
Eneko Caballero (I)	Jakintza	3.000 m. martxa	Urrea	19'18"0
Jon Urzelai (I)	Jakintza	Jabalina	Urrea	39,68 m.
Jon Urzelai	Jakintza	Altuera jauzia	Urrea	1,51 m.
Pello Etxeberria (I)	Jakintza	600 m.	Zilarra	1'44"7
Oier Gereñu (I)	Jakintza	1.000 m. oztopoak	Urrea	3'14"7
Oier Gereñu	Jakintza	600 m.	Urrea	1'41"3
Gorka Lariz (I)	Jakintza	600 m.	Brontzea	1'46"2
Eneritz Moreno (A)	Jakintza	Luzera jauzia	Brontzea	3,99 m.
Eneritz Moreno	Jakintza	150 m. hesiak	Brontzea	24"49
Eneko Barandiaran (A)	Jakintza	60 m. h.	Zilarra	
Eneko Barandiaran	Jakintza	60 m.	Brontzea	
Eneko Barandiaran	Jakintza	Altuera jauzia	Zilarra	1,43 m.
Eneko Barandiaran	Jakintza	Luzera jauzia	Zilarra	4,01 m.
Jokin Goikoetxea (I)	J.M. Barandiaran	200 m. h.	Zilarra	28"9
Jokin Goikoetxea	J.M. Barandiaran	Luzera j.	Zilarra	5,05 m.
Jokin Goikoetxea	J.M. Barandiaran	Altuera j.	Brontzea	1,45 m.
Xabier Gonzalez (I)	J.M. Barandiaran	Hirukoitza	Brontzea	9,75 m.
Aitor Parra (I)	San Benito	80 m. h.	Zilarra	14"40
Salaberria (A)	San Benito	Pisu j.	Zilarra	9,79 m.
Zaton (A)	San Benito	Pisu j.	Brontzea	9,74 m.
Xiker Rokandio (I)	La Salle	Jabalina	Brontzea	34,94 m.
Maite Telleria (I)	Laiotz H. E.	Pisu j.	Zilarra	9,26 m.

Euskadiko txapelketan lorturiko dominak

Oier Gereñu (I)	Jakintza	1.000 m. oztopoak	Zilarra	3'07"4
Jon Urzelai (I)	Jakintza	Jabalina	Urrea	42,70 m.
Eneko Caballero (I)	Jakintza	3.000 m. martxa	Zilarra	17'10"4
Maite Telleria (I)	Laiotz H. E.	Pisu j.	Urrea	9,50 m.
Jokin Goikoetxea (I)	J.M. Barandiaran	Altuera j.	Brontzea	1,53 m.

(A) Alebinak eta (I) Infantilak

Aupa neska-mutilak!

Gogor ibili dira benetan aurten gure neska-mutilak. Gogoz eta gogor. Eta emaitzak hor daude. Goiko taulan ikusi daitekeen bezala, Gipuzkoako Txapelketetan, 5 urrezko domina, 10 zilarrezko eta 8 brontzezko lortu dituzte. Batek baino gehiago gainera, etxea dominaz beteko zuen. Ordiziako Jakintza Ikastolako Eneko Barandiaranek esaterako, 4 domina eskuratu ditu: 3 zilarrezko eta brontzezko 1. Jokin Goikoetxea, Ataungo J.M. Barandiaranekoa ere bikain ibili da, 3 domina lortu baititu. Eta parte hartu beste guztiak ere noski ez dute meriturik falta izan.

Euskadiko Txapelketa zailxeagoa da denok dakigunez. Baina hala ere,

hortxe ibili dira puntan goierritarak. Guztira, 2 urrezko domina, beste 2 zilarrezko eta brontzezko 1 lortu dituzte.

Garaipen hauekin batera, Lazkao San Benito Ikastolak Gipuzkoako Txapelketan erreleboetan, mutil alebinitan, lehenengo postua eskuratu zuten. Jakintza Ikastolak, maila eta proba berdinean, 3. egin zuten. Goierritarak nagusi beraz. Alebinitan eta erreleboetan ere, San Benito Ikastolako neskek 2. postua egin zuten.

Beraz, zorionak guzti-guztiei. Baita parte hartu eta saiatu direnei ere. Eta noski, gaztetxo hauek entrenatzen eta animatzen jardun duten guztiei.



Ane Martin ordiziarra, Iratiko ahotsa

Ane Martin 23 urteko gaztea, Irati irratian ari da lanean joandako urriaz geroztik. Irratiak Nafarroako Aribere herrixkan du egoitza eta Ane ondoko Garalda herrian bizi da. Aezkoa, Erroibar, Auritz, Orreaga, Artzibarko (Itoiz dagoen eskualdea) eta Zaraitzuko herri batzuetara iristen da irrati; hau da, Irati ingurua, 3.000 bat biztanle duen eskualdea. Duela pare bat urte sortu zuten irrati, Aezkoa bailarako euskaltzaleek, euskara suspertu, bertako jendea elkartu eta zerbitzu bat eskaintzeko helburuarekin. Nafarroako Hizkuntza Politikatik dirulaguntzak dituzte.

Astelehenetik larunbatera, bi orduz emititzen da. "Ni sartu nintzeanean ordu t'erdiz emititzen zen. Eta hurrengo erronka 2 ordu t'erdiz edo 3 orduz emititzea izango da. Programa magazine modukoa da. Berriak, zorion agurrak, eguraldia, elkarriketak, oharra... Bertako jendea interesatzen zaizkion oharra ematen dira. Adibidez: behi nodrizen primak lortzeko halako papera aurkeztu behar halako egunetan eta halako lekuetan". Elebiduna da irrati. "Euskaraz eus-



Euskadi Irratian praktikak eta zenbait ordezkapen egin ondoren, Irati irratian ari da gaur egun Ane.

kalki 'arazoa' edo izan dut. Euskaldun zaharrek euskalki ezberdina daukate, Aetza. Batez ere jende zaharrak daki euskalki hori. Gazteek euskara batua dakite normalean, nafarrerako hitzak --erran, izanen, bortz, bertze...-- tarteatzen badituzte ere. Gaztelearekin berriaz, arazoa batez ere hasieran izan nuen. Oraindik ere oso arraroa egiten zait erdaraz hitz egitea".

Ane iaz Kazetaritzan lizentziatu zen eta udan Euskadi irratiaren ordezkapen

bat egin zuen. "Garai horretan egunkaririk jakin nuen lan honetara aurkezteko deialdiaren berri. Azterketa egin eta gauean bertan deitu zidaten, hartu nindutele esanez. Besterik ez neukalako joan nintzen etxetik hain urruti", adierazi digu Anek.

Biztanle gehiegi ez dituen eskualde hau oso nekazal girokoa da. Ordiziarraren esanetan, "hango jendea berezia da, oso itxia, ez dago ohituta kanpoko jendearekin egoten. Hasieran, 'irratikoa' nintzen, ez neukan izenik. Oraindik ez dut jende gehiegirik ezagutzen baina, nik uste dut ondo hartu nautela. Nerekin ohitu dira eta Ane naiz orain, eta ez 'irratikoa'. Niretzat oso zaila eta ezberdina da hango bizitza. Kanean jenderik ez ikus-tea, batez ere neguan... bizitzeko modua oso ezberdina da". Dena den, oso inguru polita da Aneren esanetan. "Oraindik nahiko birjina da. Mendia eta paseatzea gustatzen zaientzat oso egokia da eta geroz eta gehiago ari dira bertan turismoa bultzatzen".

 Ander Mujika



RENAULT ORDIZIA GOIERRI AUTOAK

(Lehen Garaje Goyerri)

Bere bezero eta lagunei jasotako konfidantza eskertu nahi die elkarte berria eratu ondoren

Hobetzeko beti egin dugun ahaleginean zera eskaitzen dugu:

Zerbitzu hobea kostu gutxiagoan

Ezarritako pieza eta akzesorioetan deskontuak

Zaldibiako bide-gurutzea, z/g 882005 - 881073 ORDIZIA



MUJICA LIBURUDENDA

Kale Nagusia, 19. Tel. 88 11 94
ORDIZIA



Zegamako ikastolako umeak 1970. urtean

“Gabon eta urte berri zoriontsu. Ikastola-ko umetxoak 1970-garrenean”, honelaxe dio Aitor Asurmendik utzi digun gabonetako postaltxoak. Bertako argazkian ageri diren zegamarrak ondorengoak dira:

Zutik: Gurutze Arrondo, Jasone Irastorza, Miren Arantxa Albizu, Ana Ormazabal, Manu Arizkorreta, M^a Luisa Urbizu, Begoña Olarte eta Xabiño Azurmendi.

Tarteko ilaran: Xabier Arizkorreta, Zelia Telleria eta Sara Irastorza.

Makurtuta: Edurne Albizu, Antton Aramendia, Aitor Asurmendi, Jon Ormazabal, Iñake Aramendia, Mila Altzaga, Idoia Aramendia, Olga Urbizu, Maite Azurmedi, Arantxa Berasategi eta Kristina Urbizu.



GARDEN GANBO

UZTAILA

- Hilabete honetan Holandako merkealdiak barruko landareetan
- 1.500 pezetako erosketagatik landare bat opari
- Erne ureztaketa sistema berriei!

OLABERRIKO MERKATAL UNEA ☎ 88 22 55



KOLDO TRIKITIXA ESKOLA

Giro jator eta atseginean
ikas dezazun zuk aukeraturikoa

☎ 88 50 85

LAZKAO

IPARRAGIRRE ANAIAK, C.B.

KARROZATEGIA

Hiribarren, 24
Tfnº: 88 95 83

20210 LAZKAO
(Gipuzkoa)



GENERALI Aseguroak

IÑAKI ARIN BAZTARRIKA

Oriako Pasealekua, 20

Tfona: 88 87 02


BEASAIN

Sute, tximista, leherketa, urak sortutako kalte edo kristalen hausketen oinarritzko estaldurak, honako hauetara hedatzen dira:

- Kontinentearen berriztatze estetikoa
- Lapurreta, ondasun bereziak, bitxiak eta eskudirua barne
- Etxetik kanpoko lapurreta
- Erantzukizun zibil zabala
- Etxean, 24 orduko asistentzia

Ikus zure etxea aseguratzeko ze merkea den
Egunean 27 pezetatik hasita

Kontinentea	5.000.000	7.000.000	9.000.000
Edukia	2.500.000	3.000.000	4.000.000
Prezioa	9.902	12.787	16.748



- Igeltseritza lan mota guztiak
- Etxegintzarako materialak, azuleju eta zoruak
- Bainugelarako tresna, iturri eta gehigarriak
- Hidromasaia bainerak eta saunak
- Subaju eta ikatz eta egurrezko sukaldeak



Barandiaran
ZERAMIKAK

Senpere, 7 ☎ 88 79 72
BEASAIN

ANTZA

FOTOKONPOSAKETA

INPRIMATEGIA

Industrialdea 1-2 • ☎ (943) 37 15 45 – Faxa: (943) 36 10 48 • 20160 LASARTE-ORIA